



ARGIA

Nola astindu gizonek zapaldutako oholtza?



24-31. orrialdeak



**"Kardiopatia izanda,
26 urte bete izana
kristoren oparia da"**

14 | ALOÑA ERAUSKIN



**Herritar oro
aintzat hartzen ez
duen algoritmoa**

32 | OSAKIDETZA



**Arte eszeniko bat,
liburuak kontatzeaz
harago**

46 | KONTALARITZA ESKOLA

2.927 | 2025 / 07 / 27 | 4 €



Bizi Baratzea

Lurrari begiratzen diogunon Orria



Kalean da 2. zenbakia: udakoa



Formatu berezia
Tolesturak
zabaldua poster
handi batera
helduko gara

Uraren arabera
diseinatutako
landa bat bada
Harri Herri Nekazaritza
proiektua, Uhartxe Arakilen
Estitxu Eizagirre



TOMATEAK posterra

Tomatearen historia, Euskal Herrian bertakotutako barietateak eta zaintzeko aholkuak Marta Barbak azaldua eta Ione Larrañagak ilustratua

A ze pagotxa!

Nola lantzen da?
Garazi Zabaleta

Metabelarra nola egin

Urnietako Besabiko
Juan Mieli ikasia / Eli Pagola

Zer egin udan?

Baratzean / Jakoba Errekondo
Basoan / Markel Arriolabengoa
Haziekin / Kelo Arribas
Sendabelarrekin / Garbiñe Larrea

Xabiroia

Oinatz pozoituak
euskal hondartzetan
Eneko Bachiller

Batu mundua bizigarri eta eguneroko bizitza
gozagarri egiten dutenen komunitatera:

eginbizibaratzea.eus

Nahi duzuna jaso, nahi duzuna ordaindu

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: EIDER ITURRIAGA / ARGIA CC BY-SA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT

Iritziak

- 19 | ENDIKA ALABORT
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | J. IGNAZIO ANSORENA
- 21 | EDU ZELAIETA
- 22 | BEÑAT IRASUEGI

Finkoak

- 39 | GORPUTZ HOTSAK
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



46 | KONTALARITZA ESKOLA

Istoriok kontatzea artea izan da aspaldidanik. Egun lanbide duten eta eskola ezarri duten Ane Arrugaeta, Itziar Rekalde eta Ane Gebara elkarrizketatu ditu Larraitz Fagundezek. Irudiak sortzeko gaitasuna, inprobisazioa, ahozotasuna... harilkatu dituzte.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Europar, oraingo sinplifikazioaren izenean, biharko bizitzak kaltetuko dira

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | ALOÑA ERAUSKIN

"Sortzetiko gaixotasunak ditugunok ez daukagu erabakitzeke aukerarik gauza askotan"

Onintza Enbeita

24 | GIZARTEA | MUSIKA FEMINISMOTIK

Orbain bizien oinordeko, lerroarteak zabaltzeko

Udane Barinagarrementeria

32 | GIZARTEA

Hiru melanomatik batean erratu eta azal iluneko pazienteak alboratzen dituen algoritmoa

Civio CC BY-SA

46 | KULTURA | KONTALARITZA ESKOLA

Ofizio bat, transmititu eta eraberritzeko

Larraitz Fagundez


ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

**Gobierno
de Navarra**



**Nafarroako
Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axiar Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Fernández, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maialen Arana, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukia kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Aldizkari honek ekoedizioaren baldintzak betetzen ditu.

Aizarna ekologikoa:



bDAP202500065


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen sareko kide gara.



Merkantzia

Migrazio krisia deitzen diote neoliberalismoaren ondorio ankerrenetako bati. Ultraeskuinaren agendaren lehen puntuetako bat da langile klaseko migratzaileen aurkako neurri sorta. Baina faxismo berrituaren lorpenik handiena da gainerako indar politikoei bere egitea haien agenda hori, eta Europan bertan baditugu adibideak. Adibidez, Erresuma Batuan agintean den Alderdi Laborista. Frantziako Macronekin adostu dute "bat barrura, bat kanpora" akordioa. Ontzi txikietan iristen diren pertsonak atxilotu eta segituan Frantziara itzularaziko dituzte. Eta, trukean, botatako migratzaile bakoitzeko, legezko bideetatik heldutako beste bat sartzen utziko ei dute. Pertsonak zenbaki huts bihurtuta, geopolitikaren salerosgai.

📷 Lagun talde bat Frantziako Gravelines herriko hondartza batean txalupa pneumatiko baten zain, Mantxako kanala zeharkatzeko.

Y. VALAT / EPA

AXIER LOPEZ



Udaletan euskara normalizatzeko dekretuaren zati handi bat baliogabe utzi du Espainiako Justiziak

 URKO APAOLAZA AVILA

Vox alderdi ultraeskuindarraren eskariz EAEko Auzitegi Nagusiak 2023ko irailean baliogabetu zituen EAEko Udal Legearen hainbat artikulua, euskararen normalizazioaren ingurukoak. Erabaki hura berretsi du orain Espainiako Auzitegi Gorenak, eta ez dago helegiterako aukerarik. Hizkuntza koofizialak daudenean haietako bat ezin dela "lehenetsi" eta "desorekak" eragotzi behar direla dio ebazpenak. Euskagintzaren Kontseiluaren esanetan, "euskal gizartearen borondatearen eta euskal erakundearen kontrako epaia da". UEMak elkarretaratzeak egin ditu protestan, mankomunitateko kide diren udalerrien udaletxeen aurrealdean.

Euskararen kontrako oldarraldi judizialaren pasarte ilun bat idatzi du Espainiako Auzitegi Gorenak asteazken honetan: Vox alderdi ultraeskuindarrak hizkuntza gutxituen aurka dituen irizpideetako asko bere egin eta Udalen Legean euskararen normalizazioa txertatzeko 179/2019 dekretuaren artikulua ugari bertan behera utzi ditu.

2023ko irailean EAEko Auzitegi Nagusiak baliogabetu egin zituen udaletan eta tokiko erakundeetan euskara normalizatu eta biziberritzea xede duten artikulua horiek, Voxek auzitara eraman eta gero. Ebazpen horri helegitea jarri zion Eusko Jaurlaritzak, eta orain Gorenak ere atzera bota ditu ia guztiak; auzitan jarritako artikulua bakarra jo du ontzat: tokiko jardueretan euskara zerbitzu eta lan hizkuntza bezala normaltasunez erabiltzeko antolatzea ahalbidetzen duena.

Gorenaren esanetan, hizkuntza koofizialak daudenean ezin da horietako bat "lehenetsi", eta hizkuntza koofizial horien arteko "desorekak" eragotzi egin behar dira.

Epaia dioenez, euskarak ezin du lehentasuna izan udal hizkuntza irizpideetan, ez ekitaldi publikoetan, ez udal barneko lan-funtzionamenduan, ezta eskaintzen dituen zerbitzuetan ere. Adibidez, bozgorailuetan edo telefono publikoetan informazioa lehenik euskaraz emateko bidea ixten du auzitegiak. Gainera, udalei irizpide horiek ezartzeko eskumena ematen zien artikulua ere bertan behera utzi du.



Epaia dioenez, euskarak ezin du lehentasuna izan udal hizkuntza irizpideetan, ez ekitaldi publikoetan, ez udal barneko lan-funtzionamenduan, ezta eskaintzen dituen zerbitzuetan ere

Epaia irmoa da eta, hortaz, Gorenak ez du helegite gehiago jartzeko aukerarik ematen.

Duela urte batzuetatik hona epaitegiak euskararen kontra hartzen ari diren norabidean urrats bat gehiago da honakoa. Aurretik dekretu horren beste hainbat artikulua baliogabe utzi ditu Espainiako Justiziak, baina Jaurlaritzak erabakigarritzat zeukan Gorenaren epai hau, eta iritsi da. Lerrook idazteko garaian oraindik ez du balorazio ofizialik egin.

EUSKARAREN MINORIZAZIOA "BETIKOTZEA" HELBURU

Euskalgintzaren Kontseiluak oso gogor hartu du ebazpena. Gogorarazi du zein

testuingurutan kaleratu den epaia, eta "euskararen minorizazioa betikotzea" helburu duen oldarraldi judizial eta politikoa dagoela martxan. Bere esanetan, gainera, oraingo epaia "euskal gizartearen borondatearen eta euskal erakundearen kontrako" da.

Izan ere, araudia Eusko Legebiltzarrean gehiago oso zabalez onartu zen, eta aldiz, sententziak "udal ordezkari bakar bat ere ez duen Vox alderdi politiko euskarafoboaren helegitea ia osotasunean" hartzen du haintzat.

Euskal komunitatea "larrialdi linguistiko" betean dagoela nabarmendu du Kontseiluak eta euskararen normalizazioa "atzeraldian" sartzeko arrikuan dagoela. Hala, dei egin die "erakunde, agintari, eragile politiko, sozial eta herritarrei irmo adieraz dezatela oldarraldiaren agerpen bortitz honen aurka daudela".

PROTESTAK

Asteburuan, euskararentzat eta euskaldunentzat justizia aldarrikatu dute milaka herritarrek udaletxeen aurrean. UEMak antolatuta egin dituzte kontzentrazioak, eta euskara "benetan" babesteko "adostasun sendoak" eskatu dituzte, "euskarak eta euskaldunok bigarren mailakoak izateari" uzteko. Aurki beste mobilizazio batzuk izango direla iragarri dute. ●

MELOI SALTZAILEA

Duintasuna



JUNE FERNANDEZ

Langabezia geratu nintzen 24 urterekin, eta eza-gun batek lan xelebrea eskaini zidan: ezkondu aurreko *despedidak* antolatzea. Logroñoko bere enpresa hedatu nahi zuen beste hiriburuetara, tartean Bilbora. Ezkongaien lagunen deiak jasotzen nituen, eta askotariko jarduerak eskaintzen eta kudeatzen nizkien: *spa*, *paintball* edo tirolina, eta ondoren afaria *show* batekin, izan *drag queenak* edo *stripperrak*.

Dilema etiko bat izan nuen lan horretan: *stripper* nanoen zerbitzua eskaini ala ez. Aukera eskandalagarria iruditzen zitzaidan, baina nor nintzen ni Bilboko *stripper* nanoen lan aukerak murrizteko, nire moralaren izenean? Mila buelta eman nizkion auziari, eta azkenean errailetatik erabaki nuen: ez nengoen bufoi dinamika kapazitista hori errazteko prest. Dena den, pare bat hilabete baino ez nituen iraun lan horretan.

Pasadizoa gogoratu dut Lamine Yamal futbolariaren 18. urtebetetze festaren harira. Zalaparta handia sortu du bere lagunak "irudi-neskak" eta nanismoa duten pertsonak kontratatu zituztelako jai pribatua girotzeko. Espainiako komunikatzaile feminista abolizionista zuriek salatu dute "irudi-neskena" (irakurri, adibidez, Ana Bernal-Triviñoren artikulua *Público* egunkarian). Akondroplasia eta bestelako displasia eskeletikoak dituzten pertsonen elkarteak iragarri du epaitegietara joko duela, "desgaitasuna duten pertsonen duintasuna babesteko". Adierazi dute nanoak entretenimendurako kontratatzea "funtsezko balore etikoak" urratzen dituela.

Aldiz, festan parte hartu zuen batek adierazi du oso gustura egon zela, ez zutela modu iraingarri batean tratatu eta duintasuna dela "ahots propioa, irizpide propioa eta gure bizitza pertsonalari eta profesionalari buruz erabakitze gaitasuna" izatea.

Askatasuna edo diskriminazio estrukturala? Eztabaidarako baliogarriak dira Amelia Barquínen azalpenak Arrigorriagako jai batzordeak Vulkano orkestra festa-egitarautik kentzearen erabakiari buruzko ARGIAko erreportajea. Nik, nire estiloan, erdibideko iritzia daukat: ezin ditugu botere dinamikak irauli subjektuen agentzia ukatuz.

Edonola ere, onartu behar dizuet duintasunari lotutako kezka premiazoagoak ditudala: sindikalismoa egiteagatik kartzelaratuak dauden Asturiasko langileak (La Suizako seiak), pertsona arrazializatuen kontrako ehizak, eta Gazako herritarren gosetea. Halakoak lehenesten ez dituen feminismoa ez da nire feminismoa. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Salbamendu sareak



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

Oraingoan ere barrenak mugituta natorkizue, beldurretik eta izutik, uzkurtuta eta larrituta. Ze herri geratzen ari zaigun, zer datorkigun epe motzean, zer utziko diegun gure ondorengoei. Saiatzen naiz pentsatzen posible dela datorrenari aurre egiteko egiturak sortzea, autoeraketatik, subjektugintzatik eta herrigintzatik. Baina horretarako espazioak baliatu behar ditugu, kontzientziazioa eta erantzukidetasuna indartuko dituztenak.

Murtziako (Espainiako Estatuak) Torre Pachecora joan gintezke, azken asteotan atzeritar jatorriko familien aurkako eraso faxistei buruz hitz egiteko; eta esan genezake Espainiako faxistak direla arazoa. Edo hitz egin genezake gure Euskal Herri maitean, euskaldunean, kooperatiboan, komunitarioan, gertatzen ari denaz. Titularrak lortu dituen Hernaniri buruz, sareetan topatzen diren Donostia eta Irungo "anekdotez", edo gure herrietan "aliatuen" artean tantaz tanta entzuten ditugun mezu arrazistez.

Gure ezintasun diskurtsiboan, pobreziatik, gerratik eta miseriatik ihesean datozenak onartzeko argudio kapitalista eta instrumentalak erabiltzera heldu gara. Elkartasuna, errespetua, eskubideak, duintasuna... baloreetan oinarritutako argudioak jada ez dira nahiko. Migratzaileak behar ditugula diogu, (zuriok) nahi ez ditugun lanpostuak bete eta jaiotze tasak mantentzeko. Baina ez gaitezen despistatu, hezkuntza ez dadila rolak iraultzeko bidea bihurtu, segi dezagun piramidean pixka bat gorago. Segregatutako lanbideak, ikastetxeak, herriak.

Eta, hau guztia, egungo paradigma sozioekonomikoaren aldaketa betean. Krisi ekosozialean murgilduta, faxismoa salbamendu ontzia balitz bezala. Ez dezagun Titanic berri bat irudikatu, ez gaitezen gu ere txalupa bila gure artean borrokan hasi. Saretu gaitezen, indartu dezagun hain gurea omen den auzolana, elkartasuna eta justizia soziala. ●



REUTERS

Migratzaileak jipoitzeko aitzakia faltsuak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Jazarpen arrazistak eztanda egin du Espainiako Torre Pacheco herrian, Euskal Herrian ere ezagun zaizkigun diskurtsoak hauspotuta: immigrazioa lotzea delinkuentziaren, sexu-erasoen eta segurtasun faltaren gorakadari. Baina datuek frogatzen dute gezurra direla gorroto diskurtso interesatu horiek.

Murtziako herriko etorkinen aurkako "ehiza-gau" antolatu beldurgarriek gogora dakarzkigute gurean ere han-hemenka antolatzen ari diren herritar patruilak eta eraso arrazistak, segurtasunaren izenean pertsona arrazializatuak (bereziki magrebtarrek eta musulmanak) jomuga dituztenak. Guztiaren atzean, ultraeskuinak (baina ez bakarrik ultraeskuinak) inpunitate osoz zabalduriko gorroto diskurtsoak daude, herritarren iruditerian gero eta txertatuagoak: migratzaileen gorakadak delinkuentzia areagotu duela, emakumeen aurkako sexu-erasoen egileak batez ere beste kultura batzuetako gizonak direla, kaleko segurtasuna txikitu dela, haien aurka ez dela neurririk hartzen eta dirulaguntzetatik bizi direla...

Lanera datozen migratzaile "txintxoak" ez, delitu egitera datozen migratzaile "gaiztoak" baino ez omen dituzte helburu, horrek azal beltza edo beltzarana dutenen aurkako jipoi kolektibo eta antolatuei zilegitasuna emango balie bezala. Kurioski, ez dago herrikide zuri "gaiztoen" aurkako ehiza antolaturik.

Gainera, datuek behin eta berriz gezurtatu dituzte aipatu diskurtsoak, eta oraingoan ere, hala frogatu du *Eldiario.es*-ek: Espainiako Barne Ministerioaren datuen arabera, azken hamarkadan 2005etik 2025era bikoiztu egin da migratzaile kopurua Espainiako Estatuan, eta ordutik hona, delinkuentzia gero eta txikiagoa da urtez urte. Are, 2025eko lehen hiruhileko datuen arabera, inoizko txikiena izan da estatuan. Lapurretara eta ebasketen kasuan, nazionalitate espainiarreko herritarrek eginak dira kasuen %70, eta sexu delituen kasuan, ez da egia "beste kultura bateko gizonak" erasotzen dituztela emakumeak, kondenatuen gehiengo handiak espainiar nazionalitateak dauka.

Proporzionaliki, kondena gehiago jasotzen ditu jatorri atzeritarreko jendeak, hori ere badiote *Eldiario.es*-en, eta gehitu dute hainbat faktore hartu behar direla kontuan, hala nola pobrezia tasa handiagoa, Poliziaren kontrol gehiago, egoera irregularra... Azken buruan, migratzaileek eurek badakite ez zaiela delitu egitea komeni, zigor handiagoak jasotzen dituztelako. Horren atzean ere bada beste bulo orokortu bat: migratzaileek delitu egiten dutela eta ez dutela ondoriorik izaten. Gezurra den seinale, datu esanguratsu bat: 2024an egunero batez beste zortzi herritar deportatu zituen Espainiako Gobernuak. Eta bulo horren luzapena: ondoriorik ez, eta gainera saria jasotzen dute, dirulaguntzetatik bizi dira. Javier Maroto Gasteizko alkate zenak ere temati jardun zuen "etorkinak gizarte laguntzetatik bizitzera datoz" ideia lau haizetara zabaltzen. Datuek, orduan ere, gezurtatu egin zuten halakorik. ●

1.385

eurorainoko gutxieneko soldata jarri du erreferentzia moduan, negoziatzeko, Eusko Jaurlaritzak, "aurreikuspen baikorrenean". Kopuru hori argudiatzeko, txosten tekniko bat egin du. ELA eta LAB sindikatuek txostenaren hainbat hutsune nabarmendu dituzte.

%19

Minbizien %19 gure ingurumenari lotuak izanen lirateke, Munduko Osasun Erakundearen arabera. Horren aurrean, osasun arloko profesionalen CPTS taldeak prebentzio kanpaina berria plazaratu du, publiko handia asaldatzeko.

2050

urterako Gaztetape (Getaria) eta Muriola (Barrika) hondartzak desager daitezke, Greenpeacearen txostenaren arabera. Itzurun (Zumaia), Karraspio (Mendexa), Isuntza (Lekeitio) eta Azkorri (Getxo) hondartzak hedaduraren erdia gal dezakete.

"Askotan esklabotza egoeran ari dira lanean, indarkeria eta abusuen menpe"

LAB

Etxeko langileek jasaten duten "prekaritateari" aurre egiteko, "neurri zehatzak" biltzen dituen dekalogoak aurkeztu du sindikatuak. Auzia Espainiako Auzitegi Gorenera eraman zuen.

LAB (2025-07-14)



"HELBURUA DA LEGEZ KONTRAKO EKINTZA ESTALTZEA, LURSAIL PRIBATU BATI TXALETA ERAIKITZEKO LIZENTZIA EMATEKO"

Xabi Alonsoren Igeldoko txaleta eraiki zuen enpresaren eta Donostiako Udalaren aurkako salaketa jarri dute Haritzalde eta Ekologistak Martxan Gipuzkoa elkarte ekologistek.

2025-07-15

"Kontsumoan eragina sortu nahi dugu eta festa egiteko eta politikoki jarduteko beste modu bat posible dela erakutsi"

Bilboko Konpartsak osatzen duten 27 taldeetatik 12k erabaki dute AEBetako Coca-Cola multinazionalaren produktu guztiak kenduko dituztela haien txosnetatik, Israel palestinarren aurka egiten ari den genozidioaren konplize izatea leporatuta.

2025-07-20



TEKNOLOGIA

Lehen mugikor adimentsua



DIANA FRANCO

Eguno bizimoduan “pertsona bat gailu bat” mantra bete dela argi dago. Gailu barik ere bizi daiteke, eta oso ondo bizi, baina aukera hori gutxi batzuen luxua eta/edo hautua bilakatu da.

Ezagun batek semeari lehen mugikor adimentsua eman behar ziola-eta, zenbait ardura partekatu zizkidan. Gazteren batekin mugikor adimentsuen inguruan hitz egin beharko banu, honakoak aipatuko nizkieke:

Hasteko, saiaturko nintzateke azaltzen teknologia ez dela neutrala. Horretarako, gizakion arteko bortizkeria/botere dinamiketan arreta jartzera gonbidatuko nuke. Dugun eredu teknologiko eta digital hegemonikoa elkarrekin aztertuko genuke. Gizakion artean sortzen diren arazoak teknologia bidez ez ditugula konponduko argi geratzea bilatuko nuke, gizakion artean konpondu behar ditugula.

Teknologien artean ezberdintasunak direla argituko nioke. Batzuek, errendimendu ekonomikoak eta botereak gidatuta, izaera zapaltzailea berezkoa duten bezala, beste batzuek, ezagutzaren partekatze librean oinarriturikoak, bizitzan hobekuntzak ekar ditzakete, modu etikoan erabiliz gero.

Lagunekin, ikaskideekin, senideekin... digitalki ditugun zenbait harreman osasuntsuak eta esanguratsuak izan daitezkeen bezala, beste batzuek gure bizitzetako ibilbidean eragin kaltegarriak ekar ditzaketela azalduko nioke. Baita digitala erreala dela ere, eta bizitza kakazteko boterea izan dezaakeela. Baina errealtatean ez bezala, interes sozioekonomiko edota politikoak eskuratzeko diseinatuak izan diren teknologiek mundu fisikoan baino pertsona gehiagorengana heltzeko boterea dute.

Sorkuntzaren botere eraldatzaileaz hitz egingo nuke berarekin. Indarrak edukiak eta teknologiak kontsumitzeraz soilik ez, sortzera ere bideratzera animatuz.

Amaitzeko, arretaren botereaz berba egingo genuke, eta pantailatik kanpo modu kontziente bideratzeak bizitzan botere handia ekar dezakeela adibideekin erakutsi. Hori baita gutako askok pantailaren aurrean hainbeste urte igaro ondoren egin dugun ikasketa handienetariko bat. ●

NAZIOARTEA



JOEGAZA

40 urteren ostean Georges Abdallah aske

ERREDAKZIOA

Georges Ibrahim Abdallah, Frantziar 40 urteko espetxealdia igaro ondoren kaleratuko dute. Palestinaren askatasunaren aldeko militantea, Libanoko Frakzio Armatu Iraultzailearen sortzailea izan zen, eta diplomazialari israeldar eta amerikar bana hiltzeaz akusatu zuten. Inoiz ez ditu bere gain hartu atentatu horiek, baina bere ideia politikoak ez ditu sekula isildu: antiinperialista suharra da. 1999az geroztik baldintzapean aske egon bazitekeen ere, sistematikoki errefusatu zaio aukera. Ostegun goizean jakin da albisteak: uztailaren 25ean utziko dute libre eta zuzenean Libanora deportatuko dute.

Uztailaren 17an, Parisko Dei Auzitegiak baimendu dio Libanora itzultzea, bere jaioterrira, bertan bizi nahi duela adierazita. Epaitegiak adierazi du zigorra "neurrigabea" izan dela egotzitako delituekin alderatuta, eta 74 urte dituen presoak ez dela segurtasun pu-

blikorako mehatxua, Libération egunkarian irakur daitekeenez. Libanoko iparraldeko bere herrizkan azken egunak bakean igarotzeko asmoa azaldu du Abdallahak.

Hala ere, bere askatasuna ez da berehalakoa izango: 2024ko azaroan epaile batek bere aldeko erabakia hartu zuen arren, fiskaltza antiterroristak helegitea aurkeztu zuen. Gainera, Parisko Auzitegiak, nahiz eta printzipioz askatasunaren alde agertu, baldintza gisa jarri zuen biktimen kalte-ordaintan “ahalegin nabarmena” egitea. Abdallahak, bere burua preso politiko gisa jotzen duenez, beti uko egin dio horrelakorik onartzeari.

Georges Ibrahim Abdallah-ri buruz gehiago jakiteko, orain hilabete batzuk Jenofa Berhokoirgoinek idatzitako erreportajea eta bere abokatu Jean-Louis Chalanseti eginiko elkarriketa eskura ditu irakurleak 2889 astekarian. ●

Pediatra, neurologo, psikologo eta psikiatra elkarteak batu dira, deseskalatze digitala eskatzeko

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Adituen irizpideei jarraituko dien pantailekiko deseskalatzea premiazkoa da eskolan eta etxean. Osasunaren bueltako Espainiako Estatu-ko erakunde garrantzitsuenek sortu berri duten plataformak hala dio. Internet eta sare sozialekiko "hiperkonexioa da pandemia berria" eta horri aurre egiteko Hezkuntza Legean eragin nahi dute lehenik.

Control Z plataforma jaio da, osasunari lotutako Espainiako elkargo eta erakunde prestigiotsuenak barne hartzen dituzten hamabost erakundek baino gehiagok osatua. Bizi dugun hiperkonexio digitala osasun publikoko "arazo oso larria" dela eta haur eta gazteen osasun mental eta fisikoa "larriki kaltetzen" ari dela ohartarazi dute, hainbat ikerketa eskutan.

Bakoitzak bere arlotik, hiperkonexio honen inpaktu zerrenda luzea aipatu dute aurkezpenean, tartean menpekotasuna, sedentarismoa, depresioa eta antsietatea, lo falta, hizkuntza garapenaren nahasmenduak, eta galera arretan, kontzentrazioan eta memorian. Mugikorrek sortzen dituzten mikroestimuluak, epe labur eta intentsitate handikoak, makina-txanpon-jaleekin alderatu dituzte, baita batak eta besteak dituzten ondorioak ere.

Iragarri dute udazkenean Espainiako Hezkuntza ministroarekin bilduko direla eta autonomia erkidegoetako Hezkuntza ordezkariekin bilera egitea eskatuko diotela, gehiegizko erabilera digitalak haur eta gazteengan duen eragina azaltzeko eta horren aurrean erkidegoetako sailburuek neurriak har ditzaten. Zehazki, Espainiako Pediatría Elkartearen gomendioak segi daitezela eskatzen dute: 0-6 urte artean pantailarik ez, 7-12 urte artean gehienez ordubete egunean (eskola eta etxea, biak barne hartuta), eta 13 urtetik aurrera gehienez bi orduko kontsumoa egunean. Aldiz, ikerketek diote haur eta gazteek askoz ordu gehiago ematen dutela pantaila aurrean.

Ikasteko oraintxe dugun baliabide preziatuena arreta da, kontzentrazioa, "eta ikerketek garbi uzten dute teknologia digitala ikasgelan sartzea arreta mantentzeko faktore apurtzailea dela"

Norabide horretan LOMLOE Hezkuntza Legea aldatzeko zuzenketa aurkeztuko du plataformak. "Zenbat eta zenbat institututan daude haurrak pantailari itsatsita eta etxean eskolako lanak ordenagailu eramangarrietan egiten?", diote.

Hain justu, hezkuntzaren digitalizazioari ARGIA (2862 astekarrian) eskaini genion erreportajea, Pablo Garaizar irakasle eta teknologian adituak argi adierazi zuen: ikasteko oraintxe dugun baliabide preziatuena arreta da, kontzentrazioa, "eta ikerketek garbi uzten dute teknologia digitala ikasgelan sartzea arreta mantentzeko faktore apurtzailea dela". Galdera egin genion: zein mailatan hasi eskolan teknologia digitala erabiltzen? "Zenbat eta beranduago, hobeto", borobildu zuen. Bere ustez, Haur Hezkuntzan ez litzateke teknologia digitala erabili behar, umeak mundu fisikoa ikasten ari direlako, eta ez dago digitalizatzeko beharrik. Abstrakzioaren eta ideien mundura salto egin aurretik, hau da, abstrakzio kapa bat den digitalizaziora salto egin aurretik, konkretua landu behar da, eta jauzia egiteko unea Lehen Hezkuntzako azken zikloan edo Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntza hasieran jarri zuen Garaizarrek. ●

MOTZEAN

Sudanen krisi humanitarioa areagotzen ari da. Uztailaren 12-13ko asteburuan, adibidez, Sudan mendebaldeko hainbat herrixkari eraso egin eta zibilak tiroz hil edota bizirik erre zituzten, etxeetan giltzapetuta. UNICEFek salatu du Ipar Darfurgo 40.000 haur artatu zituztela elikagai eskasiagatik urtariletik maiatzera bitartean.

Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako Ingurumen diputatuaren esanetan, Gipuzkoan birziklapena "maila altuetan" mantentzen da, baina Eguzki talde ekologistak kritikatu du Hondakinen Legeak 2025erako ezartzen duen gaikako bilketaren %55eko gutxieneko kopurura iristen ez diren 10 udalerrri daudela Gipuzkoan.

Hagako Taldeak deituta hogeita hamar estatu bildu dira bi egunez Kolonbian, eta horietako hamabik sei neurri sinatu dituzte "Israelen Palestinako kolonizazio ilegala" gelditzeko helburuz. Besteak beste, Tel Avivekin duten kontratu publiko oro berrikustea eta Israeli armarik ez saltzea adostu dute.

Duela aste batzuetatik, 50 bat gazte afrikar kale-egoeran daude Donostian, asilo-eskaeren erantzunaren zain. Frantziako Estatutik kanporatu zituzten, asilo-eskaerak Espainiako Estatuan egin behar zituztela esanez. 20 urte inguru dituzte eta Malitik, Boli Kostatik edo Gineatik alde egin behar izan zuten, gerratik ihesi.

EUROPAN, ORAINGO SINPLIFIKAZIOAREN IZENEAN, BIHARKO BIZITZAK KALTETUKO DIRA

Jarduera ekonomikoak sinplifikatzeko eta lehiakortasuna indartzeko aitzakiarekin, Europa mailan baita Europar Batasuneko hainbat estatutan ere, klima, ingurunea eta giza osasuna kaltetuko dituzten legeak biderkatzen ari dira 2024tik, askotan interes pribatuen

lobbyen eraginpean. Horren adibide esanguratsua da Frantziako Estatuan berriki onartu duten Duplomb legea. Halere, legebiltzarren erabakiek islatzen ez baidute ere, inguruneari buruzko europarren kezkek gora jarraitzen dute.

 NICOLAS GOÑI

Aurtengo urtarrilaren 20az geroztik, erabaki ikaragarri osatutako zerrenda bat gauzatzen dabil AEBetako 47. presidentea: ikerketa egiturak desegiten dituztenak, kutsadura saihesteko neurrien deuseztatzea, "klima" hitza bera zentsuratzea, eta noski, baliabideen ustiaketak erraztearen aldeko neurriak –batez ere erregai fosilena–. *The Guardian* egunkariak dioskunez, ingurunearen aurkako eraso gehiago izan dira ehun egunez, presidente horren aurreko agintaldi osoan baino. Ez da aste bat igaro Etxe Zuriak zerrenda horren neurri bat zalapartaka iragarri gabe. Zarata horrek ia ezkutatu ditzake European ingurumenaren aurka hartu diren azken hilabeteetako legegitza-erabakiak.

Arlo horretan, funtsa baino gehiago, estiloa da ezberdina Atlantikoaren alde honetan: zalaparta gutiago, esamolde diplomatikoagoak, eta bat-bateko deuseztatzeak baino "mila ebakik ondorioztaturiko heriotza", Herbehereetako Bas Eickhout eurodiputatu berdearen hitzetan. Joera hori 2023ko abenduan hasi zen, Europako Parlamentuko hauteskundeetarako eskuina garaile iragartzen zuten lehen inkestak argitaratzearekin; hots, Washingtingo buruzagi aldaketa ez zuten itxoin, ezta 2024ko ekaineko hauteskundeak ere. Halere, bozketa horietatik goiti lastertu zen abiadura, lehiakortasuna lehenesten duen Europako Batzordearen agenda berriarekin. Aurtengo

apirilean onarturiko Omnibus Legeak "sinplifikazioa" omen du xede, finantza jasagarriari buruzko arauak malgututa. Bertzeak bertze, zur hornidura kateetan baso-soiltzea geldiaraziko lukeen lege bat atzeratu dute, ibilgailu egileei kutsadura murrizteko xedeak lortzeko bi urte gehiago eman dizkiete... Europako Batzordean nabari den joera hori estatu mailan ere ikusten da: Italiako, Herbehereetako edota Poloniako Gobernuek ere lege bidez atzeratu eta malgutu dituzte beraien klima helburuak, lehiakortasunari buruzko kezken, inflazioaren edota laborarien protestei eman beharreko erantzunen izenean. Alemanian ere, eraikuntzaren sektoreko BEG isurketei buruzko legea murriztu dute, eta Frantziako Estatuan laborantzaren jasagarritasuna kaltetuko duen lege bat onartu berri dute.

DUPLOMB LEGEA, ADIBIDE ESANGURATSUA

Laurent Duplomb senatari eskuindarrak proposatu zuen legea uztailaren 8an onartu zuten Frantziako legebiltzarrean, zentroko, eskuineko eta eskuin muturreko diputatuen bermearekin. Lege horrek ekarriko dituen aldaketa nabariak izanen dira azetamipridoa eta flupyradifurona pestizida oso toxikoen erabilera berriz baimentzea, makroetxaldean handitzea zein uraska erraldoien eraikitzea erraztea. Orain arte, pestizidei buruzko baimeen eskumena Frantziako Elikaduraren,

Ingurunearen eta Lanaren Osasun Seguritate Agentziak zuen, baina legea onartu eta bi egunetara, arlo horretan agentziak duen independentzia murriztu diote dekretu bidez. Bide beretik, Bioaniztasunaren Agentziaren independentzia ere murriztu dute.

Laborarien 2024ko haserreari emandako erantzun gisa aurkeztu dute legea, alta, laborarien soldataren arazoa ez du aipatzen –nahiz eta hori zen laborarien iazko protesten zio nagusia–. Gainera, abeltegiak handitzeari buruzko neurria etxaldean %3ri baizik ez legokieke. Lege horren aurkarien arabera, halako ezauzgarriek argiki erakusten dute legea no-rentzat egina den: finantza arazorik ez duten eredu industrialeko etxalde handientzat. Frantziako hainbat hebadidek –*Libération*, *Politis*, *Sud-Ouest*, *France-Culture*...– diotenez, diputatu askoren-gana hurbildurik lobby lanean aritu da FNSEA sindikatua, eta sindikatu horren eskaera asko hitzik aldatu gabe dakartzki lege-testuak. FNSEA-k Laurent Duplomb senatariaren ibilbide politikoan garrantzi handia izan du eta laborantza kontuetan senatari horren iritzia nahiko argiak dira –argitsuak ez izan arren–: laborantza industrialaren defendatzaile amorratu da, Bioaniztasunaren Agentzia eta Agence Bio izeneko laborantza organikoaren agentzia deuseztatu nahi lituzke –azken horri buruzko emendakin bat onartarazi zuen urtarileko finantza-lege batean–.



EUROPARLAMENTUA

ARRAKALA

Europako Legebiltzarrean haizea aldatu zen 2024 hauteskundeetan, baina, berez, europarrek klima eta inguruneari buruz dituzten kezka ez dira aldatu.

Laborantzaz harago, azken asteotan hiri eremuetan aire kutsadura murrizteko eta lurren artifizializazioa murrizteko araudien desgitearen alde lanean aritutakoa ere da. Klima aldaketari buruz ere bere iritzia badu: "Klima aldaketa ez da berdin gauzatzen lurralde osoan. Gaur egun, nagoen tokian eragozpen baino abantaila gehiago dakarzki". Halako abiapuntu batekin, pazientzia asko behar lukete klimatologoek gauzak beren tokian ezartzeko.

ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

Alta bada, populazioaren gehiengoa ez dator bat halako iritziekin. *Elhuyar* aldizkariako *Eurobarometroa*: hazi egin dira klima-aldaketarekiko kezka eta neurriak hartzeko premia artikuluan Ana Galarragak berriki erakutsi duen bezala, Euroba-

rometroaren azken inkestaren arabera, klima-aldaketarekiko europarrek duten kezka eta neurriak hartzeko premia hazi egin dira. Europar Batasuneko 27 herrialdeetarik 18tan, herritarren %80k edo gehiagok bat egiten dute 2050erako finkatutako karbono neutraltasunaren helburuarekin. Duela bi urte, parte-hartzaileen %77ak uste zuen klima aldaketa arrisku global larria zela, gaur egun, aldiz, %85ak. Herritarren %77ak deritza klima aldaketak sorturiko kalteen kostuek karbono-neutraltasunerako trantsizioaren kostuak gainditzen dituztela. %75ak dio erregai fosilen inportazioen menpekotasuna murrizteak Europako energia seguritatea eta ekonomia indartuko lituzkeela, eta teknologia garbiagoetan Europaren lehiakortasuna bultzatzeko xedea %84ak du babesten. Laburbildurik: klimari da-

gokionez gizarteak nagusiki bat egiten du zientziarekin, eta horretaz bederen poztu gaitzke.

Halako emaitzek errealitate kezkarri bat erakusten digute: klimari dagokionez –eta kutsadura arazoei dagokionez berdin erran genezake– europarlamentuaren eta Europako hainbat estatutako parlamentuen erabakiek ez dituzte populazioaren kezka eta iritziak islatzen. Bruselan interese pribatuak 25.000 lobby inguru daude, araudi legal hertsagarririk gabe eta GKE edota sindikatuek baino finantza baliabide askoz gehiagorekin. Halere, hori ez da berria, lobbyak beraien betiko lanean ari dira. Gauza da azken hauteskunde europarrez geroztik haizea alde dutela, ekologismoaren aurkako narratiben haizea, alegia. Narratiba horiek nola irauli, hor dago koska. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Aloña Erauskin

BIZIRAULEA



SORTZETIKO GAIXOTASUNAK DITUGUNOK EZ DAUKAGU ERABAKITZEKO AUKERARIK GAUZA ASKOTAN



Bihotzak eztanda egin arte biziko da Aloña Erauskin (Berrobi, 1999), beste guztiok bezala. Besteon aldean, ordea, presente dauka aukera hori.

 ONINTZA ENBEITA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Hilabete bizitzeko jaio zinen zu, baina 26 urte bete dituzu.

Hala da! Hara, 30 urtera iristen banaiz, eta espero dut iristea, Troiak su hartuko du. Besteentzat 90 urte betetzeak esan nahi duena, niretzat 30 betetzeak esan nahiko du, eta zerbait potoloa antolatu nahi nuke egun horretarako. Oraindik 26 dauzkat, hala ere, eta horiek bete izana kristoren oparia da. Beste guztiok bezala nire gorabeherak ditut, baina oraintxe oso ondo nago. Bidean borroka asko egitea tokatu zait, eta tokatuko zait, baina hain gazterik nik jaso ditudan zaplaztekoak hartuta, barealdia etorri da. Zaila izan da ondo egotea, baina berriro ekaitza baletor, teknika onak ikasi ditut aurre egiteko. Izan ere, liburuan kontatu dudana bezala (*Bizi, bihotzak eztanda egin arte*), nortasun agirian 26 urte dauzkat, baina bizitza errealean ematen du 65 dauzka-

dala. Espero dut su-eten luze samar bat izatea orain, baina hala ez balitz, badut egoera kudeatzeko modua.

Zeintzuk izan dira borroka handi horiek?

Haur txiki bat gaixorik jaiotzea ez da bigarren izan. Txiki-txikitik eragozpen asko izan ditut. Emakumea izanda, gainera, gehiago. Etengabeko borroka da. Goizean esnatzen naizenetik gauero loak hartu arte, orduro egongo da momenturen bat nik heriotzan pentsatuko dudana. Orduro. Aloeder proiektuarekin hori dena mahai gainean jarri dut, eta orain konturatu naiz ez dela normala. Ni testuinguru konkretu batean hazi eta hezi naiz, eta beti pentsatu dut hori izan dela egokitu zaidana. Hankak lurrean jarri eta jendearekin hitz egiten hasten zarenean, ordea, konturatzen zara heriotzarekin pentsa-

tzen egotea ez dela normala. Ez da normala nerabezaroan zigarro bati kalada bat emateko beldurrez egotea gertatu daitekeenagatik. Eta ni jaio nintzen egunetik, edo inozentziak alde egin zidaneetik, beldurrez bizi naiz. Beldurrari aurre egiten eta beldurra normala dela onartzen ikasi egiten da, baina nekagarria da. Jendeak esaten du oporrak behar dituela, baina nik ez daukat oporrik. Ez dut lanik egiten, baina ez daukat oporrik. Hainbeste gauzari aurre egin behar izan diet: medikuak, inkapazitatea, burokrazia... Hori ere bada. Zaila jartzen dute dena eta azkenean, jubilazioa lortu dudanean, borroka hori itxi dudanean, barealdian sentitzen naiz. Orain sentitzen dut badudala baliabide nahikoa nire gorputzari ahal dudana emateko: terapia beldurrak kudeatzen ikasteko, pilates gorputzari indar apur bat emateko, fisioa...



Aloña Erauskin

BERROBI, 1999



Liburu batean bota zuen Erauskinetik sortzetiko kardiopatiarekin bizitzeak eragindako mina: *Bizi, bihotzak eztanda egin arte* (Zorrotz, 2024). Haurtzaroko fobiak ere liburuan utzi zituela dio: "Itxi nuen liburua eta askatu egin nintzen". Leihoak ixten direnean, ateak zabaltzen direla esaten dute, ordea, eta hor jarraitzen du Aloeder proiektuarekin ate berriak zabaltzen etengabe.

Zuk esan duzu ez dela normala heriotzaz pentsatzea, baina hil, denok hilko gara.

Hortara etorri gara!

Zuk presio handia duzula egia da, baina hemen gaude biok eta ez dakigu biotatik zein hilko den lehenengo.

Berrobin bertan, gazteak hil izan dira, eta ni haien hiletetara joan naiz. Zer uste duzu? Hileta horietan ez zaidala hotzikara jartzen? Gehiago esango dizut: gazte baten hiletan etorri ziztzaidan haren hurbileko bat eta esan zidan ni hura baino lehen hilko nintzela pentsatu izan zuela beti. Herri honetan mundu guztiak espero zuen ni hil egingo nintzela.

Zuretzat zer izan da onartzeko zailena: jendeak etengabe gaixotzat hartzea, heriotzaren presentzia...?

Gogorrena hegala moztea izan da. Kardiopatiarekin jaio nintzen, urtero egin izan ditut errebisioak medikuarnean, eta horrenbestez kito. 23 urterekin, ordea, bizitza eraikitzen hasi nintzenean, bihotzak eztanda egin zidan. Karrera amaitu nuen, lanean ari nintzen, askatasunean murgiltzera nindoan, eta dena bertan behera utzi behar izan nuen. Behin, batxilergoan geundela, historiako irakasleak esan zigun feminismoaren erroa independentzia ekonomikoa dela. Azalean bizi izan dut hori: gurasoei paga eskatze-tik, nire nahiaren kontra, senarraren kontura bizitzera pasatu behar nuen. Orduan hasi ziren paperak eta borroka. Esaten zidaten hiru urte ez banituen kotizatu lehenago, ezingo nuela jubilaziorik eskatu. 22 urterekin amaitu nuen karrera eta 23rekin utzi behar izan nuen lana. Ingurukoek haien laguntza eskaintzen zidaten, baina nik libre izan nahi nuen ahal nuen heinean. Horregatik nago orain momentu goxoan: jubilazioa lortu dut.

Independentzia ekonomikoa beste era batera lortu duzu.

Hor dago Aloeder proiektua.

Zer da zuretzat Aloeder?

Egon da bolada bat, Aloederri begira, pentsatu izan dudana: "Zeinen ondo ateratzen zaion dena neska honi!". Eta neska hori neu naiz! Mundu guztiak txalotzen du Aloeder, miretsi egiten dute... baina gero Aloederren maskara kendu eta etxean minez egoten dena

Aloña da. Inkapazitatearen kontuarekin Aloñak izugarri sufritu du. Gero Aloederrek sare sozialetan sufrimendu hori konpartitu izan duenean mundu guztiak esan dio onena dela. Azkenean ulertu dut Aloederrek Aloña behar duela Aloña delako esperientzia duena eta sufrimendutik irakaspenak atera dituela. Aldi berean, Aloñak Aloeder behar du motibazioa delako. Aloeder *alter ego* bat da, erakutsi didana obarioak ondo jarrita ditudala eta ezerezetik gauzak lortu ditzakedala.

Itxuraz ez du ematen gaixorik zaudenik, eta sare sozialetan ez da sufrimendurik ikusten. Inoiz sentitu duzu sare sozialetan erakusten dugunaren eta errealtate faltsua saldu nahi izatearen arteko mugak lausoak direla?

Begira, aste honetan bertan publikazio bat egin nuen Instagramen. Badakizu, bizitza zoragarria dela erakusten duten hondartzako argazki batzuk. Bada, ezabatu egin nituen. Neure buruari esaten nion bizitza eder hori ez zela une horretan bizitzen ari nintzena: izeba operatu berri, etxean dena hankaz gora... sare sozialek dena arrosa kolorez margotuta publikatzera bultzatzen gaituzte. Uste dut norbaitek asmatu zituela guztiok pentsa genezan mundua ederra dela beti, eta hala ez badugu sentitzen gure ardura dela. Saiatzen naiz sare sozialak kritika sozialerako erabiltzen, eta nola ez, sortzetiko kardiopatiak ikusgarri egiten. Zeren ez zait ezer nabari, baina nik goizero eta gauero karrokada bat pastilla hartzen dut, satuometroa etengabe jartzen dut behatzean, atzo bertan kardiologoarekin telefonoz egon nintzen pastilla berri bati buruz hizketan... nire bizitza hori da!

"Nire bizitza hori da", esan duzu.

Kontatzeak zertarako balio lezake?

Jartzen naiz nire gurasoen edo anaiaren lekuan, eta badakit indar handia egiten dutela ni aurrera ateratzeko. Norbaitek azaldu balie zerbait, egoera berean dagoela esan, hitz egin... errazagoa izango zatekeen haientzat. Gazte askok idazten didate sare sozialetan: Madrilera joan behar dutela eta urduri daudela, haien kardiologoa halako dela eta ea nirea nor den, 16 urte dituztela eta gaizki pasatzen ari direla... jartzen naiz 14 urteko Aloña hartan pentsatzen eta, nik ere izan banu hitz egiteko norbait edo erantzunen bat eman ahal izango



zidakeen norbait! Nire kasua kontatzeak laguntzen du esateko hau kaka zaharra dela, baina bizirik nagoela, ez naizela adimen artifizialak asmatutako norbait, existitzen naizela. Beraz, hau negatik egiten dut, alde batetik: egunero zerbait egiteko izateak lagundu egiten dit. Beste alde batetik, gure gaitza ikusgarri egin dezaket.

Osasun sistema publikoak badauka gaixotasun kronikoak dituzuenoi laguntzeko behar adina baliabide?

Badakit murrizketa asko egin ditzutela, baina nik neuk zortea izan dut. Zaindua sentitu naiz beti. Bestalde, egia da gaixotasun kronikoak ditugunok ez badugu zainduta sentitu behar, ea zeinek sentitu behar duen. Nire kasuan, dena den, ez daukat kexarik. Larrialdietan azaltzen banaiz edozein pneumo-

niarekin, segituan artatzen naute. Kontua da, arazo berarekin zu bazoaz, ordu mordoia itxaron beharko duzula agian:

“

Nire kasua kontatzeak laguntzen du esateko hau kaka zaharra dela, baina bizirik nagoela, ez naizela adimen artifizialak asmatutako norbait

arazoa hor dago. Nik medikuaren telefono zenbakia daukat, oporretan ere deitu egin diezaioket... jendeak ordaindu egiten du halako zerbitzua izatearren, baina guri, publikoan lan egiten duten profesionalak tratatu hori ematen digute. Hori goraipatu egin behar da.

Irakurtzen duzunean osasungintzan murrizketak egingo direla, zer pasatzen zaizu burutik?

Uholdeak egon dira Berrobin orain dela aste pare bat, adibidez, eta herriko WhatsApp taldean irakurri nuen errepideak itxita zeudela. Antsietate krisia izan nuen. Hasi nintzen pentsatzen zerbait

gertatzen bazitzaidan ezingo zuela anbulantziak nire bila etorri, eta estutu egin nintzen. Itzalaldian ere berdin: larri egon nintzen jakin nuen arte ospitaleek badituztela larrialdietan argindarra lortzeko sistema propioak. Nire buruan alarma hori dago beti. Orduan, dudarik gabe, ezin dugu osasungintzan murriztu. Inbertitu behar dugu osasunean eta hezkuntzan.

Gizartean badago gabeziarik gaixotasun kronikoak dituen jendearekin?

Gu, produktiboak ez garenok, beste errail batean goaz. Ez dugu balio. Nik, esaterako, ezingo nuke ama biologikoa izan. Beraz, ez naiz produktiboa emakume bezala.

Zaila izan da zuretzat hori onartzea?

Bai. Ama izateko modu asko daude, baina nik ezin dut haurdun gelditu. Dolu potoloa izan nuen. Beste bide batzuk jorratzea erabaki genuen, eta aurtengo urtarrilean adopzioaren inguruko formazioa izan genuen. Berriz ere takikardia gogorra izan nuen, eta pentsatu nuen zerbait esaten ari zitzaidala bihotzak eztanda egin arte bizitzeko. Obsesionatuta nengoen amatasunarekin: haurdunaldi subrogatua ere aztertu nuen. Niri ginekologoak esaten zidan dena ondo daukadala, adin ugalkorrean nengoela eta joaten nintzen kardiologoarengana eta esaten zidan pentsatu ere ez egiteko haurdun gelditzerik. Badakizu ze borroka den hori? Esan nion bikotekideari: haurdun gera naiteke, baina hiltzeko arriskua dago. Orduan esan zidan berak ez zuela nik ekarritako ume-rik nahi, ni nahi ninduela. Hor egin nuen klik bat. Produktibitateari begira beste errail batean noa zentzu guztietan: 26 urterekin jubilatuta nago, argi daukat ez naizela haurdun egongo, eta nahikoa argi ez naizela ama izango. 26 urterekin nork ditu gauza horiek hain argi?

Egongo dira batzuk ama izan nahi ez dutenak.

Jakina, haiek erabakita, ordea! Esan nahi dizudana da, niri hau tokatu egin zaidala. Nik entzuten ditudanean beste emakume batzuk erabaki egin dutenak ama ez izatea, inbidia ematen didate. Nahiago nuke nik ere hori banu.

Erabakitzeko aukera?

Horixe. Guk, sortzetiko gaixotasunak ditugunok, erabakitzeko aukerarik ez daukagu gauza askotan.

Baztertuta sentitu izan zara inoiz?

Akordatzan naiz DBHn soinketako irakasleak ez zidala notarik jarri. Horrek jaitsi egin zidan unibertsitatera joateko batez besteko nota, baina gorputz heziketako orduetan irakasle gelan izaten ninduen ez nuelako soinketa egiteko balio. Umeak gaiztoak direla esaten da, eta izan nituen nik ere denen moduan borrokak umetan, baina pertsona heldu batek hori egitea?

Zure liburuaren izenburua eta zure lema da "Bizi, bihotzak eztanda egin arte". Zer da bihotzak eztanda egitea?

Inoiz izan duzu antsietaterik? Ematen du kardiopatia dugunon kontua dela bakarrik, baina gizartearen erritmo frenetikoan jende asko dago inoiz bihotza azeleratuta sentitu duena. Bada, nik izan nuen hori bider hamar. Egon nintzen ordubete, etxeko ohean etzanda, minutuko 280 pultsazio nituela. Banindoa. Hor sentitu nuena da eztanda. Jakina, 280 pultsaziotan egon diren gutxiak hil egin dira, eta ni oraindik hemen nago. Bihotz azkar hori, eta eztanda hori, batek baino gehiagok sentitu du gizarte honetan. Denok sentitu dugu momenturen batean azkarregi goazela: ez naiz iristen, beti nire ametsa izan da hona iristea eta orain hemen egonda...

Besterik gabe.

Zer da *besterik gabe*? Niretzat ez du existitzen. Gauzei balorea kentzen ari zara, eta denak dauka zerbait. *Besterik gabe* ez dago. Beti esan digute heriotza bihotza gelditzea dela, beraz, bihotza gelditu arte, bizi.

Ez daukazu sakonegiaren konplexurik? Jendeak ez du gauza hauetaz hitz egiten.

Aloña, kuadrillan dagoenean, isildu egiten

da. Gero, Aloederrek esaten du isildutako hori, eta jendeak arrazoi ematen dio.

Orduan, neurri batean, beharrezkoa zaizu sare sozialetan gauza hauetaz hitz egitea, bestela ezingo zenuke zure gaixotasuna ikusgarri egin.

Ederki ulertu didazu!

Hipokresia ez da, beraz, sareetan dabilenarena bakarrik, gizartearena ere bada: ondokoak esaten digunak aspertu egiten gaitu, eta sarean irakurtzen duguna sinetsi egiten dugu.

Honetan hasi behar nuela esan nuenean jendearen erreakzioa izan zen ea nik zer neukan kontatzeko. Zer daukadan kontatzeko? Bada, liburu bat idazteko adina bizipen ditut, eta idatzi ere egin dut liburu hori. Inpostorearen sindromea daukat, nahiz eta jakin libre garelako guztiok nahi dugunaz hitz egiteko. Gizarte hezkuntza ikasi nuen eta karreraren asko landu genuen iritzi kritikoa. Kuadrillakoe-kin esertzen nintzen eta aldatu egin naizela esaten zidaten.

Beste errail batetik zoazela diozu, gaixorik egoteak urrundu zaituela gizartearen erritmotik. Zuk nola ikusten gaituzu besteok?

Ni baino okerrago jende asko dago, baina hau tragedia bat da. Ez nioke inori hau opatuko 26 urterekin edo 26 urtez, baina pare bat egunetan sentipen hauekin bizitzea bai. Orduan jendeak pentsatuko luke zeinen ondo dagoen astelehenetik ostiralera lanera joan daitekeelako edo bi ume sano dituelako nahiz eta astun sa-

marrak izan, edo ze ondo dagoen kirola egitearren hil egingo dela pentsatzen ez duena... Ikusten dut zortedunak zaretela eta ez zarete konturatzen.

Denoi iruditzen zaigu guk falta dugun hori daukanak ez dakiela hura baloratzen eta horrek frustrazioa sortzen du. Egia da ez dela berdina gauza materialekin edo norbere osasunarekin izan.

Nik gauza materialik ez dut behar. Osasuna? Hara, orain dela hiru urte oso gaixorik nengoen, baina orain nagoen moduan 70 urtera iritsiko banintz, ez dut gehiago behar. Ez dut behar AEB-tara joatea. Osasuna izango banu, gozatu-ko nukeela? Dudarik gabe. Baina ni orain-txe, abuztuan, etxetik ordu pare batera joatea oporretan? Pribilegio bat da. Baietz saldu nahi digute, baina ez dugu behar gehiago.

Gaur egun aisialdiak ere produktiboa izan behar du. Zu erabat beste muturrean zaude?


Bai. Nik ezin dut crossfitera joan. Txakurrarekin paseo bat ematen dut eta zoriontsua naiz!

Zoriontsua naiz! Elkarriketa bat amaitzeko esaldi perfektoa da.


Zoriontasuna momentuak dira. Sufritu dudanean sufritu egin dudala esan dudanean, esaten dizut orain zoriontsu naizela, eta oso harro nagoela bilakatu naizen emakume honetaz.

Zorionak, Aloña!

Eskerrik asko. ●


Erraldioen ipuinak

12 €




12 €

Bi liburuak
batera erosita
22 €

Hezkuntzaz gogoetak

14 €



16 €

Bi liburuak
batera erosita
28 €



Mutualitateen itzalean: langileen osasuna mehatxupean



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Demagun zure laneko giroa kaxkarrara dela. Lan gehiegi dago, baina ez da kontratazio berririk egiten edo, egiten bada, eskasa. Lankideen arteko harremanak ez dira batere osasuntsuak, eta *mobbing* horizontala eta bertikala edozein momentuan hedatu daiteke. Oso estres maila handia daukazu. Agian estresa baino gehiago. Eztanda egin baino lehen, medikuan ordua hartzen duzu. Zure familiako medikura zoaz eta artatuko zaitu.

Mediku horrek egiturazko arazoa konponduko du? Ez. Arazoa enpresan dago, enpresaren antolakuntzan, lan giroan, kulturen, beren lehentasunetan. Hori da lantokietako eguneroko ogia. Mediku horrek baliteke kontingentzia arruntengatiko baja luzatzea. Eztanda ez egiteko. Enpresak modan dagoen hitza erabiliko du, “absentismoa”. Baina erabaki horren atzean dagoena lan osasuna bermatzea da, dagoen legedia aplikatuz. Mediku horrek jarraipena egingo dizu, eta hobeto zaudenean, berriro lanera bidali. Agerikoak dira osasun-sistema publikoak dituen gainkarga eta gabezia ugari. Baina, momentuz, lehentasuna gaixoaren osasuna da.

Orain, imajina ezazu osasun sare publikoko medikua izan beharrean, mutualitate bateko medikua dela. Nahiz eta, teoriarik, mutualitate hori independentea eta irabazi asmorik gabekoa izan, enpresarekiko duen harremana oso estua da. Ezaguna da nola laneko bajak laburtzen

Proposatzen ari direna osasun-sistema duala da, lan arloko osasuna patronalen mutuen esku uztea. Osasun-sistema publikoa, azpi finantzatua, bigarren mailakoa, txiroentzat izango da

dituzten, langilearen osasun interesen aurka. Baita lan gaixotasunak gutxiesten dituztela ere. Enpresekin batera, sendatze prozesuetan langileak estutzen eta hertsatzen dituzte.

Pirinioetatik hegoaldera, lanekoak ez diren bajeen tratamendua mutualitateei eskualdatzeko mehatxua dago. Haste-ko, traumatologia-bajeen eta tratamendu terapeutikoen proba diagnostikoak Gizarte Segurantzaren mutualitateei eskualdatzea mahai gainean jarri da, berez, osasun-sistema publikoei dagokiena. Absentismoa aitzakiatzat hartuta, langileen kriminalizazioa sustatu nahi da, kontrol-mekanismoak mutualitateen esku utzita, gaixorik dauden langileak lehenbailehen lan egitera behartzeko. Prozesu hori erabat iluna izaten ari da, herritarrei biz-

karra emanda ez esatearren. Izan ere, pribatizazio horrekin (batzuek, ironia gutxirekin “kontratazio publikoa” deitzen dutena), osasun publikoak pairatzen dituen arazo guztiak ederki konponduko lirateke, bultzatzaileen arabera.

Osasun-sistema publikoa pribatizatze-ko interesak ugariak dira. Enpresen partetik, eurek izendatzen duten “absentismoa” errotik murrizteko langileen osasun eta lan eskubideak zapaltzeko, mutualitateen laguntzarekin. Hots, gaixorik lanera joanda irabaziak handitzen jarraitzeko, langileen gaineko kontrol autoritarioaren bitartez. Mutualitateen partetik, sektore publikotik negozio puska bat jasotzea, eta osasunaren kontrola bereganatzea. Gobernuen aldetik, administrazio publikoan gertatzen den “absentismoa” murriztea, eta osasun publikoaren fardela beste bati pasatzea.

Proposatzen ari direna osasun-sistema duala da, lan arloko osasuna patronalen mutuen esku uztea. Osasun-sistema publikoa, azpi finantzatua, bigarren mailakoa, txiroentzat eta margenetan daudenentzat izango da. Lan arloan, osasuna esku publikoetatik urrunduko da, eta erakunde pribatu batzuen esku utzi, mutualitateen esku. Langileentzat dakartzan ondorio beltzekin.

Ospitaleko zerbitzu bat ixten dute-nean, neurri horren aurkako herritarren erantzuna irmoa izan ohi da. Mutualitateen kasuan are larriagoa da, isilpean egiten ari dira, guztion osasunaren aurka. ●

Nire garuna ote naiz? (I)



TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA

Antza denez, dualista naiz, izan nahi ez dudan arren. Esaldia bukle bat da: izan nahi ez dudan zerbait naiz, orduan: nor da esaldian ezkutuan dagoen nia, dualista izan nahi ez duena? Edo, alderantziz, dualista dena da, hain zuzen, ni hori (izan nahi ez badu ere)? Nahaspila bat.

Ez dudala dualista izan nahi, diot, dualista antropologikoa zehazki. Hau da, gizakiaz mintzo, ezin dut pentsatu bi substantziez osatuta gaudenik, bata fisikoko-materiala eta bestea, esan dezagun espirituala, psikologikoa edo, besterik gabe, ez-fisikoa edo ez-materiala. Ez dut sinesten (ezin dut sinetsi) arima, izpiritu edo antzeko gauzetan: existitzen gara mundura etortzen garenean eta hiltzen garenean existitzeari uzten diogu. Tartean gure bizitza dago, hau da, organismo oso konplexu baten bizialdia, gauza sinestezinak sortzeko gai dena (hala nola sonetoak, erlijioak, partikulen azeleragailua, tortura, opera, bertsolaritza, Olinpiar Jokoak, bakailaoa pil-pilean, albiste faltsuak eta beste milioika gauza).

Bi ohar. Nahaspilaren zati bat hizkuntzaren errua da, sasiartean sartzeraren behartzen baikaitu; lengoaia erabiltzen dugula uste dugu, baina bera da gu erabiltzen gaituena. Begira: “gure bizitza” esaten dudanean jada bereizten ari naiz *gu* eta *gure bizitza*. Eta ez dakit bereizi ahal diren, zinez. Beste oharra: gauza sinestezinak sortzeko gai izan garela esatean pentsa dezakezu agian zuk zeuk ez duzula horrelakorik egin, baina ez da egia: kantatu duzu inoiz, gezurretan ibili zara, eskolara edo zinera joan? Irakurri duzu (berdin libururik edo kartelik), hormak

pintatu, etxebizitza alokatu, ogia erosi, hileta batera joan, autobusa hartu, hitz bat letreiatu, iraindu, promestu...? Bada, apurtxo bat pentsatuz gero, konturatuko zara oso gauza bitxiak direla, soilik geuk, *homo sapiens*-ok, egiten ditugunak.

Bizialdian, *homo sapiens* espezieko organismoek gorputz hutsak baino zerbait gehiago direlako ilusioa izaten dute maiz (ez dakigu beste animaliei, edo landareei, gauza bera gertatzen zaien). Hiltzean ez baitiogu existitzeari uzten (ez al zuten esan Carl Saganek eta Xabier Letek izar-hautsa garela, finean?), bizirik egoteari uzten diogu, baina hor dago gure gorpua, organismo hila (mikroorganismo bizidun asko biltzen dituen a-bizidunak baina inkontzienteak?-), usteldu egingo dena, eta desagertuko dena nahiz eta gorpuzkien zati batzuek denbora luzez iraungo duten, erretzen ez badituzte. Hor daukazue, berriz ere, “gure gorputza”: dualismoa. Baina materialistok ez gara kontraesankor bakarrik, katolikoe, Hausterre egunean, elkarri esaten diote “hautsa zara,

eta hauts bihurtuko zara”. Zertan gara? Ez da kristautasuna dualista, ala? Nola hautsa garela? Hori besterik ez?

Dualismo kristauaren aurretik, tradizio oso zaharrek, European gutxienez K. a. VI. mendetik, Orfismoak eta Pitagorismoak (askotan zailak bereizten, horregatik tradizio orfiko-pitagorikoaz ere mintzatzen da) nik nahi gabe onesten dudana dualismoa aurre-suposatzen dute. Tradizio horren arabera, arima hilezkorra gorputz hilkor batean bizi da. Tira, ez dut hori sinesten (ezta arimen transmigrazioan eta berraragitzean ere), baina uste dut (badiotsuet, nahi gabe) ez naitela nire gorputzarekin nahasten (agian euskara petoan esan behar nuke *nire burua* ez dela *nire gorputzarekin* nahastu behar, baina burua, literalki ulertuta, gorputzaren atal bat denez... jotzen ote du euskarak bereziki materialismorantz?). Tradizio hori, agian esoteriko samarra, nork eta Platonek indartu zuen, pauso bat haratago joanik, gorputza arimaren kartzela dela esanda. ●



MAIDER LETURIAGA

Egia esan



JOSE IGNAZIO
ANSORENA
TXISTULARIA

Egia esan, ez dakit nola hasi zen, hedabideetan, kirolarien elkarrizketetan, *egia esan* errepikatzeko ohitura. Pilotariak, txirrindulariak, futbolariak... Aipamen hori egin ezean, gezurra esango zuten? Ebanjelioetako *Benetan diotsuet* imitatu nahia?

Hedabideetan ere agertu ziren Iruñeko alkate Asironen hitzok: sanferminak munduko jairik hoberenak dira. Eskerrak ez zuen “egia esan” tartekatu, sanferminak ez baitira munduko jairik onenak. Horrelakorik ez dagoelako eta, txistularien saioak kendurik, zabarkeria ugari dituztelako. Egia esan, entzierro aurretik santuari eskainitako kantua euskaraz eginik puntuak irabazi dituzte. Baina itzulpena azentuaren aldetik mingarri gertatzen da, *San Férmín* hori... Hobeto: *Entzun, Fermin santua*. Eta kantaera, berezko hirunakako erritmoa galduta? Egia esan, hasi beharra dago txukuntzen, bestela Hemingway bera berpiztuko da fundamentua jartzen hasteko.

Egia esan, zabarkeria oso hedatuta dago festetan. Larrienak, haur txikientzat antolatutakoetan. Eskoletan ikasturte amaierako eta bestelako jaialdietan, adibidez, nolako eredia saltzen diegu, megafonia kaxkar kaltegarrien bitartez inguruko guztien belarriak punitzea normalizat ematen? Gurean arduradunei galdetu nien zergatik jartzen zuten zigor auditibo hura eta erantzuna: giroa jartzeko. Gogorra

da egun pedagogiari hainbeste garrantzi ematea hitzez, eta giroa zer den nahastea. Baionako festetan hasi omen dira kezkatzen adingabekoak ordu txikietan kaleetan beren gisan ibiltzen uzten dituztelako guraso askok. Egia esan, nolako kaka nahaste sozialak antolatzen ari garen konturatzen hasten bagara, ez dago gaizki.

Egia esan, egia dagoenik ez da egia. Baina ez da egia egirik ez dagoenik. Egia txiki, diskretu, apal ugari daude hainbat txokotan gorderik eta pixkana bilatu behar dira bizitzan aurrera egiteko. Bestela geldirik geratzen gara edo atzera egiten.

Egia da, ordea, gezurrak daudela. Norbanakoen libertatea, esaterako. Galdetu psikiatriei zenbateraino garen geure buruen jabe. Maitasunaren bertsio zabalduena, hedabideetan eta liburuetan, gezurra da. Berdintasunaren kontua ere traka gogorra. Egia esan, gezurra bera ere gezurra da. Atal txikietan gezurrak esan daitezke. Atal handietan hobe isiltzea. Pertsonak fikzioez elikatzen garen piztiak garelako.

Egia esan, egia *berdadero* eta bakarra poesia da. Ikastaroa egiteko entzun Euskadi Irratian José Luis Padrónen *Lizardiren Baratza* programa. Eta masterra osatzeko, irakurri Leire Ugadiren *Simulakro bat* poema liburuan *Egia esan* olerkia. Honela amaitzen da: *Ez nuen egirik esan, zuek gezurra esan zenidaten arte*. ●

Ekarri seiko hori



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Behin batean, esku bakoitzean sei hatz zituen ume bat ikusi zuen Kelly doktoreak. Gurasoek ebakuntza egiteko erabaki irmoa hartua zuten, baina umeak ez zuen nahi. Mutikoak sei edo zazpi urte izango zituen, eta ederra zen.

– Ez! Nahi ditut denak. Nireak dira eta nahi ditut! –esan zuen haurrak.

Pentsatu nuen Kelly zaharra umeari ebakuntza egiteko arrazoiak ematen saiatuko zela, baina, horren orde, gurasoei esan zien umeak bere berezitasuna gorde nahi zuela.

– Eta zergatik ez? –esan zuen medikuak. Gurasoak ezin sinetsiak zeuden. Doktoreak adierazi zuen haurrak iritzia

aldatuz gero ebakuntza egiteko arazorik ez zela izanen. Jakina, kasu horretan, zenbat eta gazteago, hobe.

–Gustatzen zait nola defendatzen di-tuen bere eskubideak. Jarri hemen, seme –eta eskua eman zion mutikoari.”

Lucia Berlinen narrazioak aurrera jarraitzen du: gurasoak purrustaka joan ziren medikuarenetik eta haurra, berriz, irribarre zabal-zabal batekin.

Lerro batzuk beherago, honela dio narratzaileak: “Zer dute txarrik sei hatzek esku batean? Edozein modutan ere arra-roak dira hatzak, behatzak, ilea edota belarriak bezala. Nik, adibidez, denok isatsa izatea nahi nuke”. ●

Martxa eta burujabetzak



BEÑAT IRASUEGI
KOOPERATIBISTA

Madalenetan murgilduta gaudela irakurriko duzue askok artikulua hau, bestela ere pentsatu gure etorkizuneko egunerokoan, jai giro herrikoia aurrez irudikatzen duen herria baita urte osorako desio dugun herri eredu, deskantsu pixka bat gehiago-ekin, noski. Badira urte batzuk Orereta/Erreterian Madalenak *herria egiten duten egunak* direla esaten hasi ginela, asmo komunitario bezala, egun bereziak eguneroko bihurtzeko desioz.

Baina asmo politikotik errealitate materialera lurreratzean, desio eta asmoak betetzen ote dira? Azterketa sakonik egin beharrik gabe, berehala ikusiko dugu ezetz. Kontsumo eredu hegemonikoa gailentzen da festa giroetan; edari eta janari kontsumoa tokiko ekoizleen ikuspegi bazterrekoarekin, agendarako komunikazio tresna komertzial eta toxikoen erabilera gero eta eskusiboagoarekin, kultur proposamenaren estandarizazio eta *sold out* ereduarekin, herrigintzan errelebo faltaren ordezkapen instituzionalizatuarekin, edo jai-ekonomiaren merkantilizazioarekin, Ticket Bai ezartzeko argumentuak horren adibide onak dira.

Jai eraldatzailearen
bidea ere egin da;
feminismoak jai giroko
harremanetan egin
duen borrokarekin,
herri eta auzo askotako
kontsumo proposamen
burujabeekin

Hala ere, azken urteotan jai eraldatzailearen bidea ere egin da; feminismoak jai giroko harremanetan egin duen borrokarekin, EHZ bezalako eredu proposamen integralarekin, herri eta auzo askotako kontsumo proposamen burujabeekin. Gure herrian ere Madalenak herritartu dira, tradizioak eraldatuz herritar guztientzako jaiak izateko, gozamenen eta antolaketan.

Jaietan irudikatu eta landu nahi ditugun burujabetza borroken ebakipuntuetan dugu lanketan jarraitzeko eremu erraldoia. Lelo berri bat proposatzen dut, *martxa eta borroka* klasikoan oinarrituz, *martxa eta burujabetzak* plural eta materialera aldatuz.

Borroken metatzetik abiatuz, oinarri feminista, ekologista, antirrazista eta euskaldunetik, jaietan ere burujabetza materialak erdigunean kokatuz; kultura kooperatiboa programazioan txertatuz, eredu ekonomiko komunitario-kooperatiboarekin, baliabide eta espazio publikoen kudeaketa komunitarioarekin, belaunaldi arteko antolaketarekin, komunikazioa tresna libre eta irisgarriekin eginez, lan boluntario eta profesionala duintasunez egiteko baliabideekin, energia, elikadura, musika, ardoa eta festarako beharrezkoa dena burujabetza irizpideekin hornituz.

Jaiak denontzat bizigarri, irisgarri eta eroso izateko, borrokak eta burujabetzak gurutzatu behar ditugu, izan nahi dugun herria eta komunitatea ospatzeko.

Gora etorkizuneko jai burujabeak, gora Madalenak! ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK , OSPAIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

www.argia.eus/eginargiakoa





MUSIKAREN ANALISI FEMINISTAK

*Orbain bizien oinordeko,
lerroarteak zabaltzeko*

Bizi-biziak dira oraindik musikan dabiltzan emakume eta genero disidenteen azalean bizi izandako indarkeriaren orbainak. Ugaritu dira, halaber, orbain horiei buruzko ahotsak komunikabideetan, ikerketetan zein hainbat ekimenetan. “Asko dago egiteko oraindik”, diote. Eta horretan ari dira, nor bere esparruan eta nor bere lekutik: egiteke dagoen hori zertan den aletzen, feminismotik sortutako analisirako tresnak baliatuta. Ari dira, besteak beste, distortsionatutako usteez, indarkeriaz, oholtzatik kanpo pasatzen denaz eta musika goitik behera astintzearen beharraz. Alegia, maskulinoan eraikitako egitura hori arrakalatzeaz eta bestelakoak eraikitzeaz.

 UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Laurent Garnier eta David Brun-Lambert-en *Electroshock* lanaren abiapuntua da honakoa: “Oholtza bat edo dantzaleku bat ez da inoiz leku neutroa; oroz gain, askatasun- eta transgresio-eremu bat da, beste inon ez bezala, belaunaldi berri bakoitzak aurre egin beharreko erronkak biltzen dituena”.

Azken hamarkadetako Euskal Herriko oholtzei erreparatuta, eta oholtza horiek zapaldu dituztenen hausnarketei segituta, aurreko belaunaldiak aurre egin beharreko erronkak zeintzuk izan diren bistaritzen zaigu. Ezbairik gabe, eszenario gaineko emakumeen ikusgaitasuna izan da erronka handietako bat. Lan horretan egin diren hainbat aldarrri, ekimen eta proiektu kolektibo dira horren erakusle. Belaunaldiak bezala, erronka berriak ere agertzen joan dira. 2014an, Iratxe Retolaza eta Itsaso Gutierrezek honela zioten: “Ikusgarritasun hori aldarrikatu ondoren, beharrezkoa da bestelako go-goetak ere egitea, musikaren esparrua egituratzeko erabili ohi diren gizarte-diskurtsoak azaleratzeko, eta auzitan jartzeko”. Urte berean, Mefsst! (Musika

Errebolta Feminista) kolektiboak eta Ka-fea eta Gailetak musika-ekimenak beste galdera baten bueltan ari ziren: “Nolakoa izango litzateke jaialdi feminista bat?”.

Zertan dira, hamarkada bat geroago, aurreko belaunaldiak jorratutako erronkak? Eta zeintzuk dira belaunaldi berriek esku artean darabiltzatenak? Horien berri izateko, begirada oholtzetan ez ezik, fokua jaialdi feministen antolakuntzabileretan edo han-hemenka antolatzen diren hausnarketa saioetan jar dezakegu. Joan den ekainaren 18an, *Oholtzak gu-reak ere badira. Disidentzia feministak eta eszena musikal/artistikoa* izenburupean, Burlatako Txosna Batzordeak antolatutako mahai ingurua izan zen horren adibide. Aimar Jimenez (Maruxak/Zinez), Nerea Arrasate (Naxker), Amets Aranguren (Ibil Bedi) eta Eneko García (Albina Stardust) aritu ziren oholtzan, instrumenturik gabe, Leire Gorostizak (Xendra) proposatutako galdera eta auzien inguruan hizketan. Bertan esandakoak oinarri hartuta, egiteke ditugunak zertan diren xehatzeko ahalegina da honakoa, solasaldi ostea girotu zuen Olaia Inziarteren hitz musikatuak bidelagun hartuta.



NIK IRABAZITA, BERTZE BIAK ZER DIRA?

Hizketaldiari hasiera emateko, Jone Expositok eta Oli Artolak egindako analisiaren emaitzak konpartitu zituen Leire Gorostiza mahai inguruaren gidariak. Analisi horrek, kuantitatiboki, udal programazio, jaialdi eta gunee autogestionatuetako oholtzetan emakumeen



presentzia izan zuen behaketa-objektu. Hurrengoak dira ateratako datu batzuk: hamar emanalditatik bitan bakarrik topatu zuten emakumeen presentzia; agendaren %10 baino ez zuten hartzen emakumeen taldeek; eta gizonezkoek soilik osatutako taldeek hartzen dute zuzeneko musika eskaintzaren zatirik handiena.

Hala, kuotak izan ziren hasiera-hasieratik hizpide eta eztabaidagai garrantzitsuenetako bat. Urte luzeko ikusgaitasunaren borrorak hartu duen forma garaikidea dira kuotak, baliagarri izan daitezkeenak eta oraindik esparru batzuetan aldarrikatzen direnak. Edonola ere, oholtzetan emakumeen eta genero disidentzien presentzia bermatzeko tresna

bat dira, ez gehiago eta ez gutxiago. Izan ere, badirudi kuotak ezarri eta betetzea salbazio gisa azaltzen zaigula. "Oholtzan egon nahi zenuten, bada hemen duzue zuen toki(txo)a". Baina, kontrara, eta hizlarien bizipenei jarraituta, kuoten auziak ere badakartza ondorioak.

Zergatik? Kupoa ia beti %10etik behe-rakoa delako. Ehuneko hori betetzeko



NEREA ARRASATE



ENEKO GARCÍA

deitu zaituztela sentitzea kaka bat delako. Eta kaka bat dela pentsatzeak errudun sentitzea ere ekar dezakeelako. “Ez dakit zein puntutaraino sentitzen garen errudun, agian eskertuta egon behar baikara deitzen gaituztelako”, adierazi du Nerea Arrasatek. Soilik *musikari* izatea gizonen pribilegio bihurtzen delako; emakumeak *emakume musikari* baitira. Kuota txiki horren barruan sartzen direlako gizonen osatuta ez dauden taldeak, eta musika-genero bat bailiran tratatzen direlako; emakumeen edo genero disidenteen taldeak eta beste guztiak, berdin du salsa, punka edo hip-hop egiten duten. Bide beretik, kuota berean, eta ondorioz, kategoria bakarrean sartzen direlako gizon zuri zis eta hetero ez diren gorputz eta identitate guztiak. Eta, hala, gizonak/gainontzekoak binomiotik bakarrik irakurtzen delako oholtzetako aniztasuna, gainontzeko zapalkuntza ardatzei erreparatu gabe. Ehuneko horretan jende gutxi kabitzen delako, eta ondorioz, ekainaren 28aren bueltan ez bada, ez dagoelako kartelik bi transez osatuta, adibidez.

Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren mantra alde batera utzi eta feminismo beltzetik garatutako in-

terseksionalitatearen begirada musikara ekarriko bagenu, ariko ginateke, agian, arrazializazio kuotak, *diska* kuotak, prekario kuotak, trans kuotak edo lodi kuotak ezartzeaz. Alegia, emakumeen kuotaren barruan ere errepresentaziorik ez duten identitate eta gorputzen ikusgaitasunaz. Edo kategoria berean sartzen direnen artean gorputzen diren indarkeria bizipen guztiz desberdinez. Edo honetaz guztiaz ari garenean interpelaturik sentitu ere egiten ez diren gizonen, beraiek oholtzatik jaitsi gabe gure artean konpondu beharreko kontua balitz bezala.

ZURE ALDAREA OKUPATZEAGATIK, PAGATZEN NABIL...

“Erdira iritsita ere, zer? Hori da helburua?”, galdegin die Leire Gorostizak mahai inguruko musikariei. Demagun oholtzan emakumeak eta genero disidenteak %50 diren jaialdi bat. Eta galde diezaiegun, Leire Gorostizak mahaikideei egin bezala, beren bizipenez: oholtzakoez, igo aurrekoez eta ondorengoez.

Orduan azalduko zaizkigu, hasteko, autoexijentzia maila desorbitatuak: Iñi Etxezarretak (Labar) elkarrizketa batean

zioen bezala, arauan ez dagoen gorputz guztiek gainkonpentsaziora jotzen dute musikan beraien presentzia justifikatu ahal izateko; eta, justifikazioaz gain, espektatibak ez betetzeak ere ezinegona sortzen du, gorputz ez normatiboetan porrota irain bihurtzea askoz errazagoa baita. Bide beretik, Nerea Ibarzabal bertsolariaren hitzak ekarri zituen gogora Amets Aragurenak: “Ez badakigu *perfekto* egingo dugula, ez gara igotzen”. Batez ere leku ezezagunetan jotzeko proposamena jasotzen denean, tentsioa eta beldurra sortzen dira, aurrez izandako esperientzia batzuk gorputzen memorian gordeta izateagatik: izan objektuak bota dizkietelako, sexualizatuak edo irainduak izan direlako, edo izan kontzertuak iragartzeko karteletan dagoen trabesti bakarraren aurpegia –eta bakarrik berea– erreta agertu delako. Gainera, antolatzaileek horri pisua kentzen diotelako. Eta eguna heltzean, adibidez soinu probetan, instrumentistek jasaten dutelako gutxiespena eta teknikarien *mansplaining*-a. Proba bukatu, kamerinora heldu eta pixa zutik egiteko komunak bakarrik egotea, edo, trabestien kasuan, makillatzeko espazioa enegarrenez exijitu



AIMAR JIMÉNEZ



AMETS ARANGUREN

behar izatea. Eta pentsa: oraindik ez da zuzenekoa hasi. Eta hasten denean, guztiontzako espazio seguru gisa salduko da, gainera; trans batek mikroa hartzeagatik, abrakadabra, txosnagunea transentzat espazio seguru bilakatuko balitz bezala. Horrela kontatu du Eneko García: "Biolentzia jasotzen dugu oholtzan gaudenean, baina askotan telefonoz deitzen gaituztenetik jasotzen dugu biolentzia".

"Espazio horietan egon beharko gara aldarrikatzeko badela garaia beste gorputz batzuk egoteko oholtzetan"

Eneko García

Albina Stardust

"Horren aurrean zer egin dezakegu?", galdetu du mahaikideetako batek, eta ideia desberdinak atera dira. García-ren ustez, "espazio horietan egon beharko gara aldarrikatzeko badela garaia beste gorputz batzuk egoteko oholtzetan". Amets Aranguren ek bestelako hausnarketak bat plazaratu du, antolatzaileen ikuspegitik: "Niretzat konplexua da kupoaren *mobida*, zeren leku horretatik oso ebidentea iruditzen baitzait kupo jarri behar dela, baina, aldi berean, izorratu egiten nau ni naizenean kupo gisa deitua. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zait gonbidapen bat kupo batetzeko dela identifikatzen dugunean, berau ez hartzea gurekiko eraso edo mespretxu gisa".

Konplexua da, beraz, kuoten auzia: eraginkorra den ala ez, erabilera egokia egiten zaion ala ez, hari honetatik tiraka jarraitu nahi dugun ala ez... Zabalik dago galdera. Edonola ere, kuoten inguruko eztabaida interesgarria da, beste galdera batzuk irekitzen dituelako. Hasteko, zirkuitu musikal batetik bestera -berezik, *mainstream*-etik autogestionatutara- mantentzen eta aldatzen diren lo-

gikak ikusteko. Bestetik, musika-eszena batean boterea non dagoen pentsatzera ere eraman gaitzakeelako -oholtzan ala oholtzak erabakitzen dituztenengan?-. Hirugarrenik, eta aurrekoaren ondorioz, oholtzatik haragoko esparruetan ere eragin beharra mahai gaineratzen digulako.

Gainera, eztabaida horiek kuoten eredu bestelako terminoetan pentsatzeko aukera ere ireki dezakete. Izan ere, zer gertatuko litzateke kupoak ezarriko bagenu, besteak beste, arlo teknikoan eta antolakuntzan? Lehen lerroetan? Eta ordutegien arabera pentsatuko bagenu?

Amets Aznarezek Musika Bulegoak antolatutako mahai inguru batean zera esan zuen: "Oholtzaren gainean espero gintuzten, baina ez gaituzte espero jai batzordean esanez 'aizu, orain arte larunbatean jotzen duen talde handiari ez diogu utziko lekua, eta herriko neska talde txikiari utziko diogu, eta 23:00etan joko dute, eta ez 45 minutuz, baizik eta ordubetez". Oholtzak gureak ere badirelako, bai. Baina *pogoak*, kamerinoak eta asanbladak ere bai.

SU HARTU DU BELARRI GORRAK

Moderatzaileak Aner Peritz bertsolariak konfrontazio transfeministaz esandakoak ekarri ditu hizpidera, beste hari-mutur interesgarri bezain konplexu bati bidea irekita. Ekintza posibleen artean, kupo zorrotzak jartzea, gizon, talde eta pertsonaia konkretuen ekintza konkretuak seinaltzea eta aldaketak exijitzea proposatu du. Baita gizona betoa jartzea ere. Zer egin auzi honetaz ezer entzun nahi ez duten belarri gor horiekin?

“Gizonezkoak %100 diren taldeak kanpora. Nahikoa da. Ez da beharrezkoa. Nire ustez kalte egiten dute”; adierazi du Aimar Jimenezek. Ildo beretik, “igual zerbait erradikalagoa egin behar dugu, ez?”, galdegin du Eneko García, eta oholtzan egoteko baimena eta barkamena eskatuzetik konfrontaziora pasa beharra aldarrikatu: “Ez da bakarrik ‘ai, baditugu bi emakume eta bi marikita oholtzan’. Ez, aurren oholtzan ez da gizonik egongo. Puntx. Bake-tsuegiak gara”.

Auzia buruan bueltaka dabilkidala, galdera berriak pizten zaizkit: bai edo ez bainoago, edo horrekin batera, nola bai eta nola ez ere hausnartu behar genukeela. Edo zertan bai eta zertan ez. Jakitun gara askotariko proposamen eszenikoak gorpuzten dituztela gizonen osatutako taldeek ere, eta haietako batzuk artistikoki zein politikoki interesgarriak iruditzen zaizkit.

Gai beraren beste hari-mutur batetik, oholtza gaineko gizontasunaz hausnarketa interesgarriak egin zituen Mikel Izarra musika kritikariak *Desafinatzen jarraitzen duen maskulinitatea* artikuluan, *Diario de Noticias*-en. *Mainstream* zirkuituak maskulinitatearen fabrika gisa funtzionatzen duela dio, gizon musikariak gizontasun eredu zehatzak proiektatu eta erreproduzitzen dituzten erreferente direlarik. Maskulinitate *cool* berri batez dihardu, gizon sentikorraren figurak lekua irabazi duela argudiatuta, baina “negar egiten duen gizona boteretsua da oraindik, arrakastatsua, desiratsua; samurtasuna dago, baina ez estatusa galtzea”. Alabaina, bestelako proposamen eta adibideak ere badakartza lerroetara, Joe Talbotek (Idles) gorpuzten duen maskulinitate deseroso, zikin eta kontraesankorra, edo maskulinitasun disidenteetatik maskulinitate beltzaren eta raparen kodeak dinamizatu dituen Lil Nas X musikaria, esaterako.

Gizonen monopolioa bukatzeko beharra mahai gainean dugu erronka da, ez bairik gabe. Eta horretarako hainbat estrategia ere plazaratzen ari dira. Era-

"Ez badakigu perfektu egingo dugula, ez gara igotzen"

Ametz Aranguren
Ibil Bedi

"Ez dakit zenbateraino sentitu behar dugu errudun; agian eskertu egin behar dugu deitu izana [kupoa betetzeko bada ere]"

Nerea Arrasate
Naxker

"Biolentzia jasotzen dugu oholtzara igotzean, baina askotan telefono deitik hasten da"

Eneko García
Albina Stardust

"Gizonezkoak %100 diren taldeak kanpora. Nahikoa da. Ez da beharrezkoa. Nire ustez kalte egiten dute"

Aimar Jimenez
Maruxak/Zine



ginkorrak diren ala ez jakiteko, horiek probatzera ausartzea da, ziurrenik, emateke dugu pausua.

... BAZTERRAK NAHASTEKO EZ BALITZ

“Egiten dituzuen letrak feministak dira? Zuen helburua, talde bezala, aldarrikapen feministak oholtzaratzea da?”. Horrelako galderak maiz entzuten dituzte. Eta horiek ez direnean, “ze ausartak oholtza gainera igotzen”, “erreferenteak zarete” eta antzerakoak. Galderoi erantzuten egon beharrez nekatuta daudela azpimarratu du Nerea Arrasate Naxker taldeko bateria-joleak: “Ni neska bat naiz eta kontzertu bat ematen ari naiz. Espazio batzuetan egotea guk egiten dugunarekin ausardia edo aldarrikapen modu bat izan daiteke, baina ez gaude momentu oro horretan pentsatzen, eta ez daukagu nahitaez horren aldarria egiteko beharrik. Uste dut lotzen zaigula mezu feminista emateko beharra guk horrelakorik egin edo eskatu gabe”. Oholtzan egotea hutsa aldarrikapen bat da oraindik; musika eginez besterik gabe gozatzea, batzuen pribilegio bihurtzen da.

Hausnarketa horri helduta, *euskal musika*-rekin konparaketa egiten zuen Ametz Aranguren, euskaraz egiten den musika, emakumeek egiten duten musika bezala, abiapuntu eta kokaleku bat dela argudiatuta, baina ez musika horren edukia: “Uste dut argi izan behar dugula hori gure parte dela eta hortik egiten ditugula gauzak. Eta nahi baldin badugu, batzuetan, horri buruz ere bai. Baina nahi baldin badugu eta batzuetan”. Eneko García beste ikuspegi



bat gehitu dio gaiari: “Arreta ematen didana da gizonei ez zaiela galdetzen bere letren mezuei buruz, jakintzat ematen dela aldarrikatzailea dela eta listo. Politika egiteko boterea emana zaie, eta guri etengabe galdetzen digute ea zergatik esaten dugun abesti batean esaldi hau edo bestea”.

Logika berean, ohiko zaigu musikaren bueltan gabiltzan feministoi bakarrik horri buruz galdetzea. Horretan ere badago begirada aldatzeko beharra. Izan ere, proposamen feministak zapalkuntzarik gabeko jendarterantz bideratutako ariketa kolektiboak diren heinean, analisi feministek abiapuntu, kokaleku eta begirada bat dakarte, baina ez aztergai bat eta bakarra; emakume eta genero disidenteeek oholztetan dituzten bizipenei bezainbat begiratu diezaiekete musikaren logika kapitalista eta kolonialei.

Egingo ez balie, analisisa murriztailea eta arriskutsua izan daiteke, gainera. Feminismoaren izenean BBK Live-n edo Viña Rocken %50a emakumeak izatea aldarrikatzera heltzea, esaterako. Kuoten eztabaia da mamitsua izanagatik, marra gorriak ere jarri behar ditugulako. Ez zaigulako hori interesatzen Last Tourren goi-postuetan egotea, IBEX35-ean edo Polizian egotea interesatzen ez zaigun bezalaxe. Ezin dugulako genozidio bat finantzatu, langileak esplotatu edota elkarte txikiei bideratzen ez zaien diru publikoa jasotzen duten enpresek antolatutako oholztan disidentzia feministak egotea aldarrikatu. Haien lorpenetako bat baita industria kapitalista eta herri kultura disidentea modu armonikoan elkarbizitzan egon daitezkeela pentsaraztea, bata bestea desagerrarazteko disei-

natuta ez balego bezala. Makrojaialdien arazoa ez baita tamaina bakarrik, musika ulertzeko, egiteko eta irudikatzeko inposatzen duten eredia baizik.

Aldarrikapenei eta politika egiteari dagokionez, Aimar Jimenezek konpartitu du Maruxak taldeari elkarrizketa gehienetan egiten dieten galdera bat: “*Mitoaroa 2.0* egiten ari zarete?”. Eta irmoa izan ohi da bere erantzuna: “Guk gure dantza taldeetan, erraldoien taldeetan eta abarretan egiten dugun militantzia egiten duenean Pello Reparazek euskal kulturari, hitz egingo dugu”.

Izan ere, musikan politika egitea leretako aldarrietatik askoz harago doa. Musikariaren aldetik, talde gisa hartzen dituzten erabaki guztiak baitira erabaki politikoak: taldekideen osaera, zein ekoiztetxe eta zigilurekin lan egin, lana non argitaratu, zein espaziotan jo, norekin eta zenbaten truke, sarreraren prezioa zenbatean jarri, nola aurkeztu eta zer gorpuztu oholztan, zein harreman sare eraiki inguruko musika-agenteeekin... Eta musika taldeko lanaz harago egiten dena ere aintzat hartu behar da, Maruxak taldeko kideak beraien militantziaz diosena bezala, edo Dena talde ondarrutarrak, *Lur azpitik* abestian, haien buruei egiten dien kritikak adierazten duen bezala.

Fokua beraian jartzen bada ere, musikariak ez ezik, musikaren esparruan, haren parte garen agente guztiok egiten dugu politika hartutako erabaki bakoitzean: kontzertuak antolatzen dituzten kolektibo autogestionatuek, produktorek, aretoetako programatzaileek, kritikariak, teknikariak, komunikabideek zein ikusleek. Erron-

karen dimentsioarekin bat datorren lana dugu erabaki horiek birpentsatzen eta eraldatzen: gure desira artistikoetatik hasita, berau kontsumitzea, antolatzea edota ikusaraztea erabakitzen dugun espazio eta moduekin jarraituta, espazio musikaletan gorpuzten duguneraino.

ZER DIRA ELKARGUNEAK, DAUDENEAN HUTSIK?

Josu Larrinaga antropologoak dio euskal herri-musikak, Euskal Herrian jazotako zenbait aldaketa sozial islatzeaz gain, horiek aurreikusi, performatu, erraztu, bideratu eta moldatu izan dituela. Hargatik, musikaren industriaren atzaparrak helduko ez diren espazioak indartu eta musikaren bestelako ulerkera bat irudikatzen, probatzen eta performatzen jarraitzea da aurrera begira zabalik dugun joko-zelaia.

Bide horretan, saretzearen garrantzia azpimarratzen dute musikariak, baina berau plano sinbolikotik harago gauzatu beharra ere bai, Amets Arangurenak adierazi bezala: “Denok dakigu kolektiboan eta komunitatean indartsuagoak, eraginkorrakoak eta *denagoak* garela. Baina sare hori ez da existitzen”. Nerea Arrasatek ere berretsi du saretzearen falta: “Esperientziak partekatze modua edo bidea da agian falta dena, batez ere gure artean indartzeko; hasi berri diren taldeek saretze hori beharrezkoa dute”.

Mikrorik, kamerarik edo grabagailurik egongo ez den topagunea, hausnarketa patxadatsu eta kontraesankorrari bide emango diona. Elkarri begiratu eta elkar entzunda, galdera berriak egiten jarraitzeko. ●

OREZTA ALA MINBIZIA?

HIRU MELANOMATIK BATEAN ERRATU ETA AZAL ILUNEKO PAZIENTEAK ALBORATZEN DITUEN ALGORITMOA

Osakidetza lanean ari da Asisa aseguru-etxe pribatuaren filial baten Quantus Skin sistema osasun-zentroetan ezartzeko, 1,6 milioi euroko inbertsioa eginda. Adituek kritikatu egin dute adimen artifizialeko sistema hori, emaitza "eskasak" eta "arriskutsuak" dituelako. Algoritmoa paziente zuriekin bakarrik dago trebatuta.

 CIVIO - CC-BY-SA

Denbora urrea da. Bereziki melanomaz ari bagara, azaleko minbizirik arriskutsuena. Tumore hori lehenbailehen diagnostikatzearabakigarria da bizitzak salbatzeko, ia beste edozein minbizitan baino gehiago. Espainiako Estatuan, kalkulatzen da 2025ean 9.400 melanoma kasu inguru izango direla. Tumore oso oldarkorra da, azkar barreia daiteke eta hilabete gutxi batzuetan metastasia eragin dezake. Hori gertatzen denean, pronostikoa txarra izaten da, eta, beraz, detekzioan egindako edozein akats zorigaiztokoa izan daiteke.

Hain zuzen ere, premia horrek bultzatu du EAEn adimen artifizialaren al-

deko apustua egitera. Osakidetza lanean ari da bere osasun-zentroek eta ospitale publikoek Quantus Skin erabil dezaten, azaleko minbiziaren arriskua –melanoma barne– diagnostikatzeko diseinatutako algoritmoa. Teorian, prozesua arintzen du: lehen mailako arretatik, familiako medikuek ospitaleko dermatologia zerbitzura bidali ahal izango dituzte lesio susmagarrien irudiak, baita gaiztoak izateko probabilitatea ere, algoritmoak automatikoki kalkulatuta. Eusko Jaurlaritzaren asmoa da Quantus Skin-ek, gaur egun probetan dagoena, lehenengo zein paziente artatu behar diren erabakitzen laguntzea.

Hala ere, datuek errealitate kezkarria erakusten dute. Transmural Bio-

tehek, Quantus Skin merkaturatzen duen enpresak, hasierako azterketa bat egin zuen eta emaitza baikorrak lortu zituen, baina muga esanguratsuak zituen: erabat online egin zen eta ez zen inongo aldizkari akademikotan argitaratu, hau da, ez zuen zientzian eskatzen den ohiko kalitate-kontrola gainditu.

Geroago, Madrilgo Ramón y Cajal ospitaleko dermatologoek eta Complutense Unibertsitateko irakasleek bigarren azterketa bat egin zuten, eta argitaratu egin zuten Quantus Skin benetako eraginkortasun klinikoa ebaluatzeko. Lan horrek, Transmural Biotech enpresaren finantzaketa eta laguntza teknikoak izan zituenak, emaitza txarragoak eman zituen: algorit-



GETTY IMAGES

moak hiru melanomatik bat alde batera uzten du. Sentikortasuna %69koa da, eta horrek esan nahi du hilgarria izan daitekeen minbizi horren benetako kasuen %31 ez dituela atzematen.

Transmural Biotecheko zuzendari nagusi David Fernández Rodríguezek emaitza txarrak lotu zituen irudiak hartzean izandako akatsekin, Quantus Skin-ek emandako jarraibideak ez zirelako bete. EAEko probetan ere ikusi duten zerbait da: "Lehen arretako medikuak ez daude ondo trebatuta irudiak, argazkiak, egiteko", dio, eta horrek "medikuak prestatzeko beharra" adierazten du. Hala ere, bigarren azterlanean dermatologoek parte hartu zuten, hain zuzen ere lesio susmagarriei argazkiak ateratzen espezializatuta daudenak. Fernández Rodríguezen arabera, "irudiak ondo

moztu ondoren" fidagarritasuna hobetu egin zen, "ez zirelako aginduak zehatz-mehatz betetzen ari".

ITURRI INDEPENDENTEEK KRITIKATUTAKO SISTEMA

"Azaleko minbiziarentzat", %70eko sentzibilitatea izatea "oso txarra da". Bartzelonako Clinic Ospitaleko Larruazaleko Minbiziaren Unitateko zuzendaria da Josep Malvehy Guilera medikua. Datu "oso eskasa" dela dio: "Norbaiti tresna hori ematen badiozu argazki bat egin eta melanoma bat izan daitekeen ala ez atzemateko, eta hirutik batean erratzen bada, ez da egokia lehen arretako ingurune batean azaleko minbizi bahetzeko, gehiago eskatu behar diozu". Mallorcako Son Llàtzer Ospitaleko dermatologo eta Dermapixelen egile Rosa

Taberner Ferrer-en ustez, "negatibo faltsuak %31 izateak arriskutsua dirudiela ezin uka. Baheketa gisa kaskarra da oso".

Hala ere, Transmural Biotecheko zuzendari nagusia arazoa minimizatzen saiatu da. Bere produktuari mesede egiten dioten datuak soilik oinarri hartuta, Quantus Skin-en sentzibilitate baxuaz hitz egitea saihestu du. Bere eraginkortasun klinikoa aztertu zuen lan beraren arabera, sistemak bi aldiz huts egiten du, gainera: bere espezifikotasunak positibo faltsuen %19,8 eragiten du, hau da, kalteberak diren bost orbanetatik bat melanomarekin nahasten du. Horrek esan nahiko luke Quantus Skin-ek gomendatuko lukeela artatutako pertsonen ia %20 beharrik gabe espezialistengana bideratzea.



M. PÉREZ - EFE

1,6 milioi euroko kontratu publikoa Asisarentzat

2022an, Osakidetza ia 1,6 milioi euroko kontratua esleitu zion Transmural Biotech enpresari, "irudi medikoetan trebatutako adimen artifizialeko algoritmoak" martxan jartzeko. "Gutxienez" %85eko sentsibiltatea eta espezifikotasuna exijitu zuten. Bartzelonako Unibertsitateko eta Clinic Ospitaleko spin-off enpresa bat da, Asisa aseguru-etxe pribatuaren jabetzakoa. Osakidetzaaren arabera, baldintza-agirietan hainbat algoritmo jaso zituzten arren, azkenean bi bakarrik aukeratu ziren, "asistentzia-inpaktu" eta "osasun-errendimendu" handiagoak zituztelako. Horietako bat Quantus Skin zen; Civiok jakin ahal izan duenez, erabakia alde bakarrez hartu zen, dagozkion espezialistekin kontsultatu gabe. Otsailean, Osakidetza ziurtatu zuen

Quantus Skin-ek "baliozkotze-faseak" gaingitu eta "integrazio-fasean" zegoela. Bere eraginkortasun klinikoari buruz Civiok egindako galderei erantzunez, orain Osakidetza adierazi du probetan jarraitzen duela eta "emaitzen arabera" hartuko duela erabakia. Hala ere, Osakidetza arduradunek ez dute erantzun ba ote zekiten Quantus Skin-en eraginkortasun klinikoari buruz argitaratutako datuak (%69,1eko sentikortasuna eta %80,2ko espezifikotasuna) kontratuak eskatzen duen % 85aren azpitik zeudela. EAEko esleipenaz gain, Transmural Biotech-ek beste kontratu publiko bat baino ez du Katalunian, askoz zenbateko txikiagokoa (25.000 euro), erradiologiako adimen artifizialeko algoritmoak ziurtatzeko.

Azterlanean, egileek -Madrilgo Ramón y Cajal Ospitaleko dermatologoak eta Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakasleak- defendatzen dute hobe dela Quantus Skin-ek espezifikotasun handia izatea (positibo faltsu gutxi), sentsibiltate txikiaren kontura bada ere (negatibo faltsu gehiago), ez baita aplikatuko ziurtasunez diagnostikatzeko, baheketa gisa baizik. Hau da, lehen mailako arretatik kasuak iragazten laguntzeko. Hipotesi

horren arabera, kontsulta espezializatuak saturatzea saihestu daiteke horrela, eta itxaron-zerrendak eta gastuak murriztu.

Civiok kontsultatutako adituek zailtasun jarri dute algoritmoaren atzeko estrategia. Minbizia diagnostikatzeko estandar idealik ez dagoen arren -neurri batean tumore bakoitzaren agresibitatearen arabera- delako-, Quantus Skin-ek lortutakoa onargarria izatetik

urrun dago. "Azkar hazteko eta pazientea hiltzeko arrisku handia duten lesioetan, melanomaren diagnostikoa egitean erratuz gero, horretan ez naiz oso tolerantia izango. Gutxienez %92, %93 eta % 94ko sentsibiltateak eskatu behar ditut", dio Bartzelonako Clinic Ospitaleko Azaleko Minbiziaren Unitateko zuzendari Josep Malvehy Guilerak.

"Bahetze gisa erabili nahi badute, sistemak sentikortasun super handia izan

beharko luke, espezifikotasun txikixeago baten kontura", azaldu du Taberner Ferrerrek. Beste era batera esanda, hobe da horrelako algoritmo bat behar baino zuhurragoa izatea: hobe da batzuetan pertsona osasuntsuengan alarma faltsua sortu eta huts egitea, benetako minbizi kasu bat alde batera uztea baino.

LARRUAZAL ILUNA, DIAGNOSTIKO EEZAGUNA

Quantus Skinen arazoak bere sentsibilitate txikitik haratago doaz. Azterlanak melanomaren diagnostikoaren eragin-kortasun klinikoa ebaluatu zuen, ez ordea azaleko minbizi ohikoagoak baina hain erasokorrak ez direnak, hala nola kartzinoma basozelularra eta zelula ezkatadunen kartzinoma. Horietan ere Quantus Skin erabili daiteke. Egileek ez zuten aztertu nola eragiten dion larruazalaren koloreak algoritmoaren funtzionamenduari, nahiz eta aitortzen duten hori dela beren ikerketaren muga nagusietakoa.

Quantus Skin sare neuronalatan oinarrituta dago eta azaleko minbiziak detektatzen ikasi du ia bakarrik pertsona zuriengan. Algoritmoa, lehenik eta behin, International Skin Imaging Collaboration (ISIC) erakundearen 56.000 irudi baino gehixeagorekin elikatu zen. Mediku-argazkien gordailu publikoa da, batez ere Mendebaldeko ospitaleetan bilduak, eta gehienak larruazal argiak dituzten pazienteenak dira. Ondoren, Madrilgo Ramón y Cajal ospitaleko 513 pazienteren irudiak erabiliz probatu zen Quantus Skin. Guztiak zuriak ziren.

Quantus Skin elikatzeke erabili zen datu-multzoak "gizon eta emakume kaukasiarren" irudiak ditu, Transmural Biotecheko zuzendari nagusiak baieztatu duenez. "Ez dut nahi gutxiengo etnikoen gaian eta horretan guztian sartu, tresna Osakidetza erabiltzen baitu. Eskura jartzen dudana tresna bat da, dituen mugekin", dio Fernández Rodríguezek. Azal ilunagoetan trebakuntzarik ez badauka ere, Eusko Jaurlaritzak adierazi du ez dela beharrezkoa "inola-ko neurririk ezartzea" berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko, EAEko algoritmoen eta adimen artifizialeko sistemen katalogoan dagoen Quantus Skin-eko fitxan diotenaren arabera. Hala ere, sare neuronalak ia eskusiboki pertsona zurien irudiekin entrenatu direnez, litekeena da azal ilunagoetan akats gehiago izatea, hala nola ijito-et-

niako gizabanakoetan eta Latinoamerikako edo Afrikako jatorria dutenengan.

"Oso erraza da algoritmoak huts eginaraztea", azaldu dio Civiori AEBetako Texasgo Unibertsitateko dermatologia irakasle Adewole Adamsonnek. Izan ere, 2018an ohartarazi zuen adimen artifizialak diskriminazioa eragin zezakeela, modu inklusiboan eta askotarikoan garatzen ez bazen. Quantus Skin baino haratago doan arazoa da.

**"Azkar hazteko eta
pazientea hiltzeko
arritsu handia duten
lesioetan, melanomaren
diagnostikoa egitean
erratz gero, horretan ez
naiz oso tolerantzia izango.
Gutxienez %92, %93 eta
% 94ko sentsibilitateak
eskatu behar ditut".**

Josep Malvehy Guilera,
Bartzelonako Clinic Ospitaleko
Azaleko Minbiziaren Unitateko
zuzendaria

Haren iragarpenak baieztatu egin dira. Dermatologian, algoritmoak batez ere paziente zurien irudiekin elikatzen direnean, "azal ilunetan fidagarritasun diagnostikoa" murrizten da, Taberner Ferrerrek dioenez. Suediako First Derm enpresaren Skin Image Search algoritmoak, batez ere larru zurien argazkiekin trebatuak, %70etik %17ra murriztu zuen bere zehaztasuna azal iluna zuten pertsonekin erabili zenean. Ikerketa berriagoek baieztatu dute horrelako algoritmoek okerrago funtzionatzeko dutela pertsona beltzetan, eta hori ez da arazo

teknikoengatik gertatzen, entrenamendu-datuak dibertsitate faltagatik baizik.

Melanoma pertsona zurietan askoz ere ohikoagoa den minbizi bada ere, kasu horietan azal iluna duten pertsonak biziraupen global txikiagoa dute. Avery Smith ingeniari estatubatuarra ondo ezagutzen ditu zenbaki horiek. Bere bikotekideari, Latoya Smithi, melanoma bat atzeman zioten ezkondu eta urte eta erdira. "Asko harritu ninduten etniaren araberrako biziraupen-tasek. Latoya, afroamerikarra izanik, behealdean zegoen. Nik ez nekien hori, bete-betean jo ninduen arte. Beldurgarria izan zen", kontatu dio Civiori. Diagnostikoa egin ostean, 2011 amaieran, Latoya hil egin zen.

Onduz geroztik, dermatologia inklusiboagoa lortzeko eta algoritmoek desberdintasunak ez handitzeko lanean ari da Avery Smith. Bereiziki talde kalteberetan algoritmoak izan dezaketen "inpaktuaz" ohartarazteko, Smithen ez du adimen artifiziala "tresna" gisa aipatzen, guraize soil bat izango bailitzan: "Marketerako terminoa da, jendeak ulertzeko modu bat. Baina adimen artifiziala askoz gehiago da".

Anabel K. Arias legelaria ere, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Federazioko (CECU) bozeramailea, ondorio horiei buruz mintzo da: "Diagnostiko goiztiarra egiteko adimen artifiziala erabiltzean, aitzat hartu behar da litekeena dela biztanleriaren zati bat azpiordezkatuta egotea. Kasu horretan, diagnostikoa okerra izan daiteke eta eragina izan dezake pertsonaren osasunean; kaltea ere sor dezake".

ALGORITMOAREN AURREAN IKUSEZIN

"Pertsonok konfiantza handia dugu adimen artifizialaren gainean, benetakoak ez diren objektibotasun-ezaugarri batzuk ematen dizkiogu", dio Deustuko Unibertsitateko psikologia esperimentaleko katedradun Helena Matute Greñok. AA orok jasotzen duen informazioa erabiltzen du erabakiak hartzeko. Datu horiek onak ez badira edo osatu gabe badaude, baliteke huts egitea. Sistematikoki erratzen denean, algoritmoak akatsak egiten ditu, eta horiei 'alborapen' esaten diegu. Eta akats horiek pertsona-talde jakin bati gehiago eragiten badiote -jatorriagatik, azalaren koloreagatik, generoagatik edo adinagatik- alborapen diskriminatzaileez ari gara



EH11 KOLORE EKIMENAK 2016 BILBON EGINDAKO KALEJIRA BAT. TXENG MENG

Quantus Skinek kontuan hartzen ez duen aniztasuna

2025. urtearen hasieran, EAEn atzeritar jatorriko 316.942 pertsona zeuden, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren datuen arabera. 60.000 baino gehiago Magrebetik eta Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritakoak dira, eta

164.000 pertsona inguru, berriz, Latinoamerikatik, azal-tonuetan aldaera asko duen zonaldea. Horiei gehitu beharko litzaizkieke azal zuria ez duten pertsonak, hemen jaio eta bizi direnak.

Journal of Clinical Epidemiology-n argitaratutako txosten batek erakutsi zuen medikuntzarako AARI buruzko azterlanen %12k bakarrik aztertzen zuela ea alborapenik ba ote zuen. Alborapen ohikoena arrazarena zen, eta ostean generoarena eta adinarena; eta gehienak historikoki diskriminazioak jasan zituzten taldeei eragiten zieten. Akats horiek gerta daitezke entrenamendutatuak ez badira behar bezain anitzak eta orekatuak: algoritmoek biztanleriaren zati batengandik bakarrik ikasten badute, okerrago funtzionatzen dute bestelakoak diren pertsona edo talde minoritarioetan.

Akatsak ez dira larrazalaren kolore mugatzen. Aurpegia ezagutzeko teknologia komertzialek askoz ere huts gehiago egiten dute emakume beltzak


sailkatzerakoan, historikoki gizon zurien irudiekin entrenatu direlako. Antzeko zerbait gertatzen da toraxeko erradiografiak aztertzen dituzten algoritmoekin edo gaixotasun kardiobaskularrak atzematen dituztenekin. Horien errendimendu diagnostikoa okerragoa da emakumeengan, entrenamendutatuak desorekatuta badaude. Bestalde, gibleko gaixotasunak aurreikusteko gehien erabiltzen den datu-multzoetako bat erabat alboratuta dago –datuen %75 gizonenak dira–, eta, beraz, algoritmoek askoz ere huts gehiago egiten dute emakumeekin. Britania Handian, transplanteak lehenesteko algoritmoak pertsona gazteenak diskriminatzen zituen. Zein da arrazoa? Datu mugatuekin entrenatu izana. Hurrengo bost urteetarako biziraupena bakarrik hartzen bai-

tzuten kontuan, eta ez organo berri bat jasoko zuten pazienteek irabaziko zuten bizitzaren iraupena.


Gauza bera gertatzen da adinarekin lotutako alborapenekin. Horiek bereziki problematikoak dira pediatrian.

ALBORAPENAK SAIHESTEA: OZTOPO-LASTERKETA


Alborapenak saihesteko irtenbidea egon badago: "Entrenamendu multzoak ahalik eta zabalena behar du izan", azaldu du Erradiologia Medikoaren Espainiako Elkarteko bozeramaile eta Bartzelonako Bellvitge Unibertsitate Ospitaleko erradiologo Antonio López Ruedak. Baina hau ezin da beti egiaztatu. Orain arte, mediku-irudiak erabiltzen dituzten Espainiako Estatuan ezarritako adimen artifizialeko sistema gehienek ez dituzte entrenamen-



ADINA
%76,40
81.662 irudi



GENEROA
%77,50
82.848 irudi



AZAL-TONUA
%2,10
2.236 irudi

ITURRIA: DAVID WEN, SAAD M KHAN, ANTONIO JI XU, HUSSEIN IBRAHIM, LUKE SMITH, JOSÉ CABALLERO ET AL. (2022). CHARACTERISTICS OF PUBLICLY AVAILABLE SKIN CANCER IMAGE DATASETS: A SYSTEMATIC REVIEW. THE LANCET DIGITAL HEALTH 4(1): E64-E74.

Datu-base mediko gehienek ez dute larruazalaren kolorea erregistratzen

Hogeita bat datu-base publikotan jasotako 106.950 irudi dermatologikoei egindako azterketa batek erakutsi zuenez, pazienteen larruazalaren tonua ozta-ozta jaso zuen %2,1ek.

du-datuak argitaratzen. Eta datu-multzoak eskuragarriak direnean, beste arazo bat da metadaturik ez jasotzea –hala nola jatorria, generoa, adina edo larruazal mota–, zeintzuek lagunduko luketen inklusibo eta orekatuak diren egiaztatzen.

"Teoriak dio nire biztanleriaren %90ak larru zuria badu, azal mota horrekin entrenatu behar dudala, prebalentzia ere garrantzitsua baita erabakiak hartzerakoan; nire inguruan entrenatu behar dut", azpimarratu du José Juan Pereyra Rodríguez Sevillako Virgen del Rocío Unibertsitate Ospitaleko doktoreak. Kanpoan garatutako sistemen kasuan, egokiena da ospitaleek algoritmoen errendimendua ebaluatzea beren paziente-taldeetan. Lopez-Rueda ere horren aldekoa da, edozein adimen artifizial martxan jarri aurretik "tokiko datuekin berriz entrenatzearen" alde egiten baitu.

"Alborapenak dituzten algoritmoek teknologia iraultzaile horren onura potentzialak kentzen dizkiete pazienteei"

Adewole Adamson,
dermatologiako irakaslea
Texasko Unibertsitatean

"Oso garestia da enpresarentzat eta ospitalearentzat, baina hori da benetan funtzionatuko lukeena", dio erradiologoak.

Biztanleriaren ezaugarriak posta-kodearen arabera ere aldatu egiten dira "Clinic Ospitalean [Bartzelonako erdigunean] software bat garatzen badut eta Bellvitgen [kanpoaldean] ezartzen badut, ez dit balio; eta alderantziz ere ez", dio Lopez-Ruedak. Alborapen algoritmikoen ondorioak benetan kaltegarriak izan daitezke: diagnostiko desegokiak egiteagatik pazienteei kalte egitea. "Alborapenak dituzten algoritmoek teknologia iraultzaile horren onura potentzialak kentzen dizkiete pazienteei", dio Adamson, eta gaineratu du: "Arazoaren sustraia ez dago algoritmoetan, horien diseinuari eta garapenari eskainitako hausnarketan eta zaintzan baizik". ●



Grego Idiakez

“Angustia handia sortzen dit ezer ez ikustera iritsi ahal izateak”

Euskal dantzak, pilates, bilobekin egon, gurutzegramak egin eta beste zaletasun asko ditu Grego Idiakez Kortak (Ezkio-ltsaso, Gipuzkoa, 1950). 62 urterekin iktus bat izan zuen, eta ordutik, ezin ditu nahi beste gauza egin. Iktusaren ondorioz, begi baten ikusmena galdu du, eta beste iktus txikiago bat dela eta, bestearen ikusmenaren %30a. “Ezinegona” eta “beldurra” eragiten dizkio beste istripu zerebrobaskular bat izateak eta ikusmenari eragiteak.

 OLAIA L. GARAIALDE  DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Duela hamahiru urte “zartatxo moduko bat” sentitu, eta begi batetik ez zuela ikusten sumatu zuen Grego Idiakez Kortak. Irungo (Gipuzkoa) konfiantzazko optika batera joan, eta Donostiako Ospitalera joateko esan zioten. Hasieran, tronbo bat izan zitekeela zirudien, baina azkenean iktus bat zela egiaztatu zuten: “Probak eta probak egin zizkidaten, eta atera nintzenean ez nuen begi batetik ikusten. Hasieran ez nuen sinesten, uste nuen ikusmena bueltatuko zitzaidala eta ondo daukadan begia estaltzen nuen, baina pareta bat bezala ikusten nuen”.

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, iktusa edo istripu zerebrobaskularra munduan heriotza gehien eragiten dituen bigarren kausa da. Alegia, mundu osoko heriotzen %11. Horrez gain, helduetan desgaitasun neurologiko kronikoaren arrazoi nagusia da. Izan ere, normalean burmuinari eragiten

dio istripu zerebrobaskularrak, baina Idiakezen kasuan begiko arteria kaltetu zuen. Antza, sudurreko arteria apur bat okertuta duelako jo zuen begira. Alabaina, medikuek ez dakite zergatik gertatu zitzaien eta zergatik iktuserako joera duen bere gorputzak. Zentzu horretan, “zortea” duela ere uste dute medikuek:

“Iruditzen zait egun batzuetan huts egiten didala begiak edo indar gutxiago duela, baina ezin naiz egunero joan urgentzietara”

“Zortea ez dakit, niretzat begia garrantzitsua da”.

Zehazki zer zuen ongi jakin ez arren, odola ez gatzatzeko botikak eman, eta jarraipena egiten zioten: “Medikua gizon gazte bat zen, oso jatorra. Mila proba eskatu zizkidan jakin nahi zuelako zergatik jo zidan iktusak”. Horrek lasaitasuna ematen zion Idiakezi, “ziurgabetasuna” eta “ezinegon handia” eragiten zizkiolako egoerak: “Uste nuen zerbait argituko zela probetan”. Medikua hori Donostiako Ospitaletik joan da, eta orain Irungo osasun etxean artatuko dute urtean behin, “egonkor” dagoelako.

Hasieran, medikuntza tradizionaletik zein alternatibotik ikusmena berreskuratzen saiatu zen. Akupunturak esate baterako esperantza ematen zion, baina medikuaren arabera, ezinezkoa da ikusmena berreskuratzea: “Zeharo sinistuta joaten nintzen, baina ez dakit zenbat saio egin ostean, ikusi nuen ezetz”.



Gerora bigarren iktus bat ere izan zuen, beste begian, baina inpaktua “txikiagoa” izan zen, odola ez gatzatzeko botikarekin zegoelako. Horren ondorioz, begi horretatik %70a ikusten du. “Medikuek esan didate ongi dudanean begian zerbait nabaritzen dudanean urgentzietara joateko. Iruditzen zait egun batzuetan huts egiten didala begi horrek edo indar gutxiago duela, baina ezin naiz egunero joan urgentzietara”.

ZAINTZEKO ESTRATEGIAK

Beldur “handia” dio beste iktus bat izateari: “Angustia handia sortzen dit ezer ez ikustera iristeak”. Horregatik, begia zaintzen saiatzen da, eta medikuak emandako jarraibideak betetzen. Adibidez, pilates egiteari utzi dio esan ziotelako ez zela kome-ni buruz behera jartzea. Euskal dantzak ere utzi zituen: “Ez naiz oso dantzaria, baina giroa gustuko dut. Esan

zidaten badaezpada ere, saltoak, birak eta horrelakoak ez egiteko. Orain gimnasia noa jubilatuekin”. Horrez gain, arratsaldetan Irungo Emakumeen Etxean antolatzen dituzten ikastaroetan parte hartzen du lagun batekin, eta bilobekin bazkaltzen du egunero. “Burua okupatzen saiatzen naiz, horretan ez pentsatzeko”.

Jarduera batzuk egiteari utzi eta gauza batzuetan zailtasunak sentitu arren, iruditzen zaio bere errutinan ez diola sobera eragin: “Orain ez ditut distantziak hain ongi neurtzen, adibidez jende asko dagoenean nahasia-go ikusten dut. Festetan, esaterako, urduritu egiten naiz”. Halere, iktusa izan eta hasiera hartan, “askoz gehiago” nahasten zen distantziekin; adibidez, edalontzia hartzerako orduan zailtasunak izaten zituen: “Ikaragarria da egokitzeo daukagun gaitasuna. Burua segituan egokitzen da daukazun ikusmenera”. ●



GORPUTZEKO ATAL BAT?

“Begia. Nire arreta guztia begian dago. Ondo daukadan begia, ondo mantendu nahi dut. Oso gogorra iruditzen zait ezer ez ikusi gabe moldatzea”.

PRAKTIKALDIAN



Jon Fernandez portugaletetarra astean bitan etortzen da Lasarte-Oriara.

Kazetaritza egiten ikasteko praktikaldia

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ez dago kazetaritza ikasi beharrik kazetari izateko. Aspaldi entzuna dut esaldi hori. Gehiago da interesa izatea, informazioa jakin nahia, curiositatea... idazten idatziz ikasten da. Kazetaritza eginez. Horretan ari da Jon Fernandez ARGIAko bekaduna. Portugaletetarra bera, 23 urte ditu eta Zientzia Politikoen adarretik heldu da, Partaidetza eta Garapen Komunitario-ko masterra bukatu berrian.


Unibertsitateko gradu ikasketak egiten ari zen bitartean, Ikusiker ikus-entzunezkoen behategian egonaldi txiki bat egin zuen eta gazteen sare sozialetako erabileraren inguruko ikerketa kuantitatiboan parte hartu zuen. Orain hilabete batzuk, jada masterrean zela, Joxemi Zumalabe Fundazioan egin du beste praktikaldi bat eta herri mugimenduaren

inguruko gogoeta egiten aritu da, eragin-kortasun politikoaren inguruko gogoe-tak, elkarrizketak... "Euskal Herriko hainbat tokitako eragile esanguratsurekin bildu naiz eta oso lan interesgarria izan da", azaldu du. "Zientzia Politikoenatiki nator, baina beti erakarri nau kazetari-tzaren munduak. ARGIA aspalditik jarraitzen dut webgunean eta sare sozialetan, eta beti iruditzen zait interesgarria bere izaera independentea, euskarazko komunikabidea izatea, txikia... bere leloak ondo definitzen duela uste dut: "Txikitik eragiten", jarraitu du Fernandezek.

Ekainean hasi zen Lasarte-Oriako egoitzara etortzen eta "asko entzuten nuen hitz egiten hizkuntzaren ekonomia-ren inguruan, hitzak murriztea, aurrez-tea, optimizatzea... baina modu berean garrantzitsua iruditzen zait politikaren

hizkuntza; idazteko modua, erabiltzen ditugun hitzak... azken finean oso politi-koa da, erabiltzen ditugun kontzeptuek modu batean edo bestean moldatzen baitute helarazi nahi dugun mezua. Eta ARGIAko albisteetan asko nabaritzen da hori, noski".

"Ziurgabetasuna" du ahoan, gazteta-sunaren ikur ia. Irailetik aurrera dokto-regotza tesia du aukeretako bat "baldin eta unibertsitateko beka lortuko banu", zehaztu dit "eta bestela ez dakit ikaske-tekin jarraitu ala lan mundurako pausoa emango dudana". Dena den, abuztuaren 31ra arte ARGIA irakurriko dugu eta ez du elkarrizketa amaitu nahi izan prakti-kaldia egiteko asmotan dabilena ARGIA-ra gonbidatu gabe: "Ez izan zalantzarik, lankideak laguntzeko prest egoten dira eta ikasketa polita da". ●



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Iturengo arotza eta arte birziklatua

Ituren (Nafarroa), 1777. Erramun Joakin Sunbil (1755-1821) arotza Donamaria-ko Joana Mari Ezpondarekin ezkondu zen. Ia 40 urte eman zituzten ezkondua, Joana Mari 1806an hil zen arte. Eta tarte luze horretan, noizbait, Iturengo arotzak santu baten kobrezko estatua urtu omen zuen joareak egiteko, kanta herrikoi eza-gunaren arabera:

*Iturengo arotza Erramun Joakin,
Haserre omen zaude, zeren dugun jakin,
Santurik ez daiteke fiatu zurekin,
San Kristobal urtuta joareak egin.*

Sakrilegio hura egitekotan, Joana Marirekin ezkondua zegoela egin zuen, kanta-zen azken estrofan aipatzen baita emaztearen izena. Egitekotan diogu birziklatze ekintza horren frogarik ez dagoelako. Andres Iñigo euskaltzainak Sunbili buruz ezagutzen dena bildu zuen 2021ean (*Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 95). Badakigu Montevideora (Uruguay) joan-etorrian ibili zela gaztetatik eta han hil zela 65 urte zituela. Haren testamentua ere ezagutzen da; Iturengo behartsuei 1.000 peso utzi zizkien eta horiek kudeatzeko fundazio bat sortu zuten herrian. Bitan ezkondu zela ere jakina da, eta sei seme-alaba izan zituela.

Baina San Kristobalen eskultura urtu izanaren frogarik ez dago: salaketa ofizialik ez zaigu iritsi. Gainera, eliza eta ermitetako santuen irudiak zurezkoak edo pastazkoak izan ohi ziren, ez metalezkoak. Ituren inguruan, Urrozen, bada San Kristolan izeneko ermita bat, baina han San Antonioren eta San Migelen irudiak besterik ez daude. Agian, Erramun Joakin Sunbilek ermitari izena eman zion santuaren jatorrizko irudia urtu zuelako?

MIRARIA PISURA SALDUTA

Iturengo arotzak egindakoa egia baltz, ez litzateke, inolaz ere, lehen kasua izango. Antzinaroko Zazpi Mirarietako bat, Rodasko Kolosoa, lurrikara batek eraitsi zuen K.a. 226an. Bederatzi men-



Benvenuto Cellini eskultoreak eztainuzko baxera urtu behar izan zuen *Pertseo Medusaren buruarekin* (c. 1554) eskultura ezaguna bukatu ahal izateko.

dez 32 metroko estatuaren brontzezko hondakinak hiriko portuan utzi zituzten, 654an musulmanek Rodas konkistatu zuten arte. Edesako judutar bati saldu omen zioten brontzea.

Kristauak ere trebeak izan ziren metalezko artea berrerabiltzen. Erdi Aroaren hasieran, erromatar paganoen metalezko eskultura asko urtu zituzten, besteak beste, beren elizetako kanpaiak egiteko. Marko Aurelioren zaldizko estatua, ordea, akats batengatik ez zuten birziklatu; kristautasunera bihurtutako Konstantino enperadorea zela iruditu zitzaizen eta horregatik salbatu zuten.

Materialen berrerabilerak alderantzizko bidea ere egin izan du: erabilera praktikoko metalezko objektuak ere urtu izan dituzte, artelanak egiteko. Madrillgo Kongresuko atariko lehoiak egiteko, adibidez, Afrikako Gerran (1859-1860) marokoarrei kendutako kanoien metala berrerabili zuten.

CELLINIREN BAXERA PERTSEORENTZAT

Benvenuto Cellini (1500-15719) eskultoreak, brontzezko *Pertseo* ezaguna egiten ari zela, arazoak izan zituen: labea hozten ari zen, prozesua etetear zegoen, eta aleazioa hobetzeko eztainua behar zuen. Eskultoreak berak bere oroitzenetan idatziz jaso zuenez, bere baxera ona urtu behar izan zuen Florentziako Piazza della Signoria dagoen artelana bukatzeko.

Finean, objektuen balio sinbolikoaren gorabeherak sustatu ohi dute materialak berrerabiltzeko joera. Metalezko artelan batek balio sinbolikoa galtzen duenean, eta balio materiala gailentzen zaionean, artea beste objektu batzuk egiteko suntsitu ohi da. Beste batzuetan, erabilera praktikoko objektuak sakrifikatu izan dira materialari balio sinbolikoa eta artistikoa eransteko.

Eta, Erramun Joakin Sunbilen kasuan, Iturengo izanik, joareek santuek baino balio handiagoa izango zuten, nonbait. ●

ZIGILUEN ARTEAN ELKAR ULERTU, ALTERNATIBAK ERAIKITZEKO



GOIURI ALBERDI ETA
AINTZIRA OÑEDERRA
ASUNEK

Hainbat zigilu elkarrizketan jar-
tzea. Horixe izan da Udako Euskal
Unibertsitateak (UEU) eta EHKO-
lektiboak Usurbilen antolatutako
jardunaldien abiapuntua. Bertan elkar-
tu dira: EHKO Berme Sistema Parte har-
tzailea, Ekolurra zigilu ekologiko ofiziala,
Idoki Iparraldeko etxe ekoizleen kalitate
zigilua, eta Nature et Progrès Frantziako
Estatuko Berme Sistema Parte hartzailea.

Edozein elikagai dendatako apalategi-
etan nabari dugun zigilu eta etiketa
festaren aurrean, jakinek da herritarra
galduta eta babesgabe sentitzen dela, are
eta gehiago azken urteetan hedatu den
greenwashing-a eta agroekologia kontzep-
tuaren kooptazioa medio. Egoera honen
aurrean, ezinbestekoa ikusi da merkatu
globalizatuaren logikari alternatibak bi-
latzen dizkieten zigiluen elkar-elikatzea,
izan ere, zigiluen biziraupena eta hauek
alternatibak eraikitzeke erakusten duten
gaitasuna hartu-eman horren araberakoa
da. Berezik, Kontseilutik sustatzen den zi-
gilu ekologiko ofizialaren eta EHKO Berme
Sistema Parte hartzailearen (BSP) arteko
sinergieze dihardugu.

Ekolurra zigilu ekologiko ofizialak eus-
karri sendo bat ezartzen du, tokian toki-
ko zikloetan oinarritzen diren, bioaniz-
tasunaren alde egiten duten, eta ongari
kimiko, pestizida, eta naturalak ez diren



Ekainaren 19an Usurbilen egin zuten Udako Euskal Unibertsitateak eta EHKOlektiboak antolatutako
jardunaldia: Irizpide agroekologikoak definitu eta jendarteratzeko tresna: Berme Sistema Parte hartzailea.

bere osotasunean begiratzen diete,
ekoizpenean aplikatzen diren praktika
ekologikoetatik harago, nekazal eredua-
ri lotutako bestelako irizpide sozial eta
politikoei ere garrantzia hartzen dute:
besteak beste, ekofeminismoaren oina-
rriek edo elikadura segurtasuna bermat-
zeko gaitasunak. BSPek, ordea, ez dute
politika publikoen inongo babesik, eta
zentzu horretan, antzeko ekimenak aitortu
eta ikusgarri egiteak duen garrantzia
aldarrikatu da jardunaldian, baliabi-
deak eskuragarri jarrita eta gobernantza
ereduetan antzeko ekimen alternatiboei
ere leku emanda.

Nature et Progrès Frantziako BSPak
erakutsi du gaitasunik gizartea agroeko-
logiaren bidean jarri eta kontsumo ohi-
turak eraldatzeko. Azken finean, kontsu-
mitzaileak euren erosketa ahalmenaren
bitartez neurtu beharrean, herritarrek
elikadura sistema alternatiboen antola-

nagusia. Lehen sektoreko eragileen eta
gizarte mugimenduaren arteko beneta-
ko zubiak egonkortu dituzte eta inora ez
daramaten epaiketetatik harago, elkar
bat egitea lortu dute.

Beraz, jardunaldiak erakutsi digu ezin-
bestekoa dela sinergia aurkitzea, eta zi-
gilu bakoitzaren sustapena sinergia horie-
tan oinarritzea. Bestalde, sinergia horiek
egun inposatzen den eredu globalizatuari
aurre egiteko sortu diren beste alterna-
tibak indartzen dituztenez, elikaduraren
alorrean antolatu diren ekimenetatik
harago, energia eredua, lan esparrua edo
harremantzeko moduak jomugan jartzen
dituzten bestelako alternatibak ere bar-
ne bildu beharko genituzke. Horretara-
ko, Euskal Herri mailako subjektu errefe-
rente bat ezartzearen beharra aipatu da.
Bitartean, elikaduratik, EHKOlektiboak
agroekologiaren aldeko bidean lanean
jarraituko du tinko. ●

A ZE FAUNA!

ENBORRIK ZULATZEN EZ DUEN OKILA

LEPITZULIA

Jynx torquilla

TALDEA: Ornoduna / Hegaztia.

NEURRIA: Mokotik-isatsera 16-17 cm eta hego-luzera 25-27 cm.

NON BIZI DA? Baso eta baso ertzetan.

ZER JATEN DU? Intsektuak, inurriak gehien bat.

BABES MAILA: Europan babestuta.



NEREA PAGALDAI AGIRIANO
ARANZADIKO KIDEA



ARNSTEIN RÖNNING / WIKIMEDIA COMMONS CC A 3.0 UNPORTED

Euskal Herrian badugu inurrijale bat, baina ez da Ameriketan aurkitzen den ugaztun hori. Gurean hegazti bat da inurrijale amorratua dena, hainbeste gustatzen zaizkio inurriak ezen Debagoiena eta Debabarrenean *inurrijale* ere deitzen dioten. Eta hau, okil espezie bat da: lepitzulia (*Jynx torquilla*).

Baina bere ahaideekin konparatuz gero, berezi samarra dela esan dezakegu. Beste okil espezieek kolore deigarriak dituzte: okil berdea eta okil beltza, izenek dioten koloretakoak dira; okil handi, ertain, txiki eta gibelnabarrek, aldiz, kolore zuri-beltzak dituzte. Eta guztiek dute kasko gorri deigarri bat. Guztiek, lepitzuliak izan ezik, honek kolore kriptikoa baitu, hau da, kolore arre grisaxka du, puntu eta marra ilunagoak dituena. Zatak edo harrapari gautarrek duten kolorearen tankerakoa. Itxuraz ere, paseriforme baten (txantxangorri edo txolarre bat adibidez) antz handiagoa dauka okil batena baino: lurrean saltoka mugitzen da eta adar horizontaletan jartzea du

gustuko, ez ordea enborretan gora eta behera ibiltzea bere ahaideak bezala. Hau dela eta, bere ahaideek buztaneko lumak gogorrak dituzten arren –enborrean buztana enborraren kontra jartzen dute egonkortasuna irabazteko–, lepitzuliak buztaneko lumak bigunak ditu, beste hegaztiak bezala. Baina okilen ezaugarriak bereizgarriena, habiak egiteko zuhaitz enborretan zuloak egitea dela esan daiteke. Lepitzulia aldiz, honetan ere ez dator bat bere ahaideekin, ezin baitu enborretan zulorik egin –ez dauka bere ahaideek bezalako moko gogor eta zorrotza– eta ondorioz, beste hegazti batzuen habiak eta zuhaitzetako zulo naturalak aprobetxatzen ditu habia egiteko. Hau dela eta, basoak ditu gustuko hegazti honek, baina bere ahaideek ez bezala, ez ditu baso oso zabalak behar. Baso ertzetara eta beste habitat mota batzuetara zein nekazal ohitura batzuetara nahiko ongi moldatzen den espeziea da: fruta-arbolen laborantza lurrak, mahastiak zein larre estentsiboak habitat egokiak izan daitezke. Baina

zuhaitz helduak behar ditu, zuloetan egiten baitu habia eta ez duenez enborra zulatze gaitasunik, zuhaitzetan dauden zuloak aprobetxatzen ditu.

Okil berezi samarra dugu lepitzulia. Nondik ote datorkio izena? Lepitzulia: lepoa itzultzen, biratzen duena. Espezie honen ezaugarri esanguratsuenetako bat baita hau. Erasotuta edo arriskuan sentitzen denean, bere lepo luzea luzatu eta ezker-eskuin mugitzen du, suga balitz bezala, horrela, erasotzaileak suge baten aurrean dagoela pentsatuta, alde egin dezan.

Europa ipar-ekialdean lepitzuliaren populazioa jaitsi egin da eta horretan eragina izan du klima larrialdia eragindako ondorioz umaldi garaiko euriteak emendatu izanak. Horrez gain, Euskal Herrian nekazaritzaren intentsifikazioa mehatxua da espeziearentzat, hainbat arrazoiengatik: pestizidek inguruko intsektuak akabatzen dituzte eta ongariak larre eta laborantza lurretan belarren dentsitatea areagotzen dute –lepitzuliari ehizan egitea zailduz–, besteak beste. ●

SAGASTIEN JOERAREN HIPOTESIA



JAKOBA ERREKONDO

JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Etorri dira herriko jaiak. Gureak sanferminen atarikoak dira, uztailaren abiatzea. Eta aurten berrikuntza bat izan dute. Artisten herria da gurea, eta apain-apain jantzten dute jaietarako, baina aurten, ustekabea, herriko kale nagusiko sarrerako sagarrondoak lorez jantzita hartu du festaroa.

Aurten sagastietan bada zerbait berria, bere ohiko behatzaileontzat ere erabat berria. Aurten bai-urtea da, berandu sagarrek biz behin ematen dute alea, bai-urtean eta gutxiago ez-urtean. Aurten baiezkoan, denok sagar mordoaren zain hasi genuen loraldia, loraldi ikusgarri bete horietakoa zetorrelakoan. Esaeraren arabera, "martxoko lorea ez balitz hobe, apirilekoa urrea eta maiatzekoa ezer ez baino hobe". Martxoan ia ez zen lorerik ikusi. Apirilaren bigarren erdian bai, maiatzean gutxi baina lore emana ez zen amaitzen. Eta ekainarekin ere segi eta segi loretan; hau idazten ari naizen San Fermin egunean ere gure herriko sagarrondoa lorez betea dago. Ekainean sagartxoak zituzten zenbait arbolek ere lore batzuk zabalik zituzten.

Sekula ikusi gabekoa ikusten ari gara aurten. Eta batekin, bestearekin eta hurrengoarekin hitz egin eta ezin arrazoirik topa. Denok eguraldiari begira, eta aurtengo negu-udaberrian izan dituen gorabeherak miatzen. Hotzik ez duela egin. Hezetasun handia izan dela, ia-ia etengabekoa. Euri zaparrada handiak. Egun bero amorragarriak ere bai.

Horrelako klima sasoi gorabeheratsuak lehen ere ezagutu izan dira, ez berdin-berdinak, baina antzekoak bai; eta sagarrondoan aurtengo joera hori ez da gurean sekula aipatu edo jaso? Ez dut inon ezagutzen horren inguruko idatzirik edo bertsoirik edo esaerarik. Ez dagoenik ez diot, baina harrigarria bai, bai litzaidake.

Herenegun, larunbata, asteroko goizeko Euskadi Irratiko *Landaberri* saioko kon-



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA CC-BY-SA

tsultategian, azken egun hauetan harjoak sagarraren bihotz-mutxikina jaten duen eran barrua jaten dabilkidan burutazioa bota dut, eta hausnarketa oso luzearen gogamena ahoskatu eta esan egin dut. Hor dago irarria, grabatua.

Hipotesi bat bota nuen. Nire hipotesia. Hogeitaz urte inguru izango da saio berean esan nuena pinurik gabeko Euskal Herria ezagutuko gurea. Eta bi urte badira ARGIA astekariko *Bizi Baratze*ko txoko honetan idatzi nuela "Agur Intxaurrondo, agur!" Euskal Herri hezetik badoala esateko. Bietan "Jakobaren hipotesia" zioten sinestunek, teknikan, kimikan eta diruan sinesmen itsua dutenek, nik esandakoak heresia balira bezala... Zentzugabekeria balira bezala. Begira non dauden gaur pinu beltzak eta intxaurrondoak, adioak egin eta badoaz...

Jakobaren "sagastien joeraren hipotesia" izango da, baina, badaezpada, hona paporean idatzia. Sagarrondoak zerbait bilbatzen ari dira, azpilanean. Denak antzeko bidea hartzeko, loreak pixkanaka zabalduz loraldia luze luzatzearena; elkarren berri

badute eta arrazoi bera dago sakonean: erlerik ez dabil. Erleak, sagarrondoan polinizatzaile nagusiak dira. Erleak desagerarrazten ari gara eta polinizatzaileak gabe bere espezieari eusteko haziak daramatzaten sagarrak sortzeko beste estrategia bat antolatu beharra daukate ahalik eta azkarren. Aurtengoa saio bitxia da. Pixkanaka loreak irekiz polinizazio lasaia eskaintzen duten hain ugariak ez diren beste polinizatzaileen lana baliatzeko saioa ote?

Seguruenera sagarrondoa sortu zenetik beren historiako unerik latzenean daude haren ondorengoak. Erleekin batera hazi dira eta elkar hezi eta diseinatu dute, sagarrondoa eta erlea, bakoitza beraren eta bestearen premietara makurtuta, elkarrekin pare-parean eboluzionatuta. Hala landu dugu euskaldunok ere iparralde hezeko gure paisaia kulturala: etxeko atari aurrean sagastiak eta etxean erle eultzeak. Bien premia izan dugu, biena batera. Baldin eta ura edanezina izan den denboratan eta denboratan irauteko moduko edari edagarri bat egingo bage-nuen: pitar-sagardoa. ●

AUKERA NATURA

KUARTANGOKO LURSAILEKO PAISAIA ERALDATZEN



GARAZI ZABALETA



Pandemia garaian erabaki zuten Bea Lopez de Suso Marinak eta Iker Gonzalez Dominguezek landa eremura bizitzera joatea. “Nola-bait, orduan berpiztu zen aspalditik landa eremuan proiektu bat sortzeko genuen grina”, azaldu du Lopez de Susok. Kuartangora iritsi zen bikotea: lursaila erosi eta lurra prestatzeari ekin zioten, eredu birsortzailean elikagaien ekosistema hornitzailea sortzeko ametsarekin. Geroztik, horretan ari dira, pausoz pauso.

LURSAILAREN DISEINUA

Sustraiak Habitat Design aholkularitza proiektuko kideen laguntza izan zuten arabarrek lursaila diseinatzeko. “Bertako herritarrek esaten ziguten lursaila ez zela oso emankorra, eta horri buelta eman nahian ari gara: bideak eta eremuak sortu genituen, *keyline* diseinu hidrologiko bidez antolatu genuen saila, urmaela sortu genuen ura jasotzeko...”. Lursail bateko ur baliabideak ahalik eta gehien aprobe-txatzeko diseinuak egitean datza *keyline*

metodoak, eremuak banatzen ditu eta horietako bakoitzean hainbat elementu estrategikoki txertatzen ditu.

Aukera Natura proiektuan lau bat hektarea ari dira lantzen. “Lau eremu handitan antolatu dugu lursaila, eta horietako bakoitzean hainbat barrietatetako fruta arbolak landatu ditugu”. Eremu batean pista-txoak, hurrondoak eta olibondoak dituzte; beste batean intxaurreondoak; erdiko gu-
nean sagarrak, udareak, gereziak, arben-
dolondoak, haranondoak eta antzekoak;
eta azken batean masustondoak. “Guzti-
ra 220 bat fruta arbola daude, eta eremu
horiez gain, ortua egiteko beste zati zabal
bat ere badugu”, azaldu du Lopez de Susok.
Urmaela lursailaren erdialdean dago, eta
proiektuko kideek diote ikusgarriak dire-
la inguruan sortzen ari den landaredia eta
erakartzen dituen animaliak.

JOLASAK ETA APLIKAZIOA

Momentuz ekoizpen txikia dute Kuartan-
goko sailean, izan ere, kanpoan egiten dute
lan bi kideek, eta haien denbora libre a

kaintzen diote proiektuari. “Garaiko ba-
razkiak ekoizten ditugu, batik bat etxe-
rako, familiarentzako eta lagunentzako”.
Oilategi mugikorra ere badute bertan: “Ne-
kazaritza birsortzailean animaliekin ere
egiten da lan, lurraren egoera hobetzen
lagundu dezaketelako, ongaria zabaldu-
ta adibidez”.

Oraindik hasierako fasean eta probak
egiten ari dira, baina aurrera begira in-
guruko kontsumo taldeekin lan egiteko
aukera dute buruan. Bisita bereziak an-
tolatzeko ideari ere bueltaka ari dira:
“Joko bidezko bisita berezi bat egiten
hasi nahiko genuke, jendea taldeetan
etortzeko eta *scape room* moduko bat
egiteko lursailan, gure lana erakusteko”.
Gonzalez informatikaria da eta orturako
eta oilategirako mugikorreko aplikazioa
sortu du, edonorentzat eskuragarri. “Oi-
lategian arrautzak jasotzean paperean
apuntatzen genuen dena, eta Ikerrek
pentsatu zuen mugikorrean datuak jaso-
tzeko zerbait praktikoa sortzea”, amaitu
du Lopez de Susok. ●

**Oraina
ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!**

**Hamar pertsonak
Hamar istorio
DOKUMENTAL BAT**

CPAEN
NNPEK

eko-
logikoak
pasa-
gaitza

Dokumentala
ikusi

cpaen.org
navarraecologica.org

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

2030

UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural

KONTALARITZA ESKOLA

Ofizio bat, transmititu eta eraberritzeko

2024an sortu zuten Kontalaritza Eskolari buruz hitz egiteko elkartu gara Ane Gebara, Ane Arrugaeta eta Itziar Rekalde ipuin kontalariekin. Kontalaritzaren izaera artistikoaz, batekotasunaz, formakuntzaz, emanaldiez eta abarrez mintzatu dira. Besteak beste, eskolak eman dien bultzada eta sarri bakarrik egiten zuten jarduna taldean partekatu eta elkarrekin ikasteak eman dizkien erremintak aipatu dituzte.

 LARRAITZ FAGUNDEZ OSA  DOS POR DOS / ARGIA CC-BY-SA

Garai eta toki guztietan egon dira kontalariak, nahiz eta lehen ohikoagoa zen edonor aritzea tarteka ipuin eta kondairak kontatzen. Azken finean, gizakien berezko gaitasunak dira ahoz goran eta hitz biziz komunikatzea, gertakariak eta istorioak kontatzea. Eta beste edozein gaitasun bezala, hori ere landu egiten da, ikasita eta arituta, eta trebetasun handia lortu izan dute askok. Garai batean, kontalari onenak etxez etxe ibiltzen omen ziren kontu zahar eta berriak kontatzen; uzta garaietan, txerri-hilketetan edota elkarretaratze berezietan kontalariak etortzeko irrikaz egoten zen jendea. Hainbesteko gogoz, non lehia egoten baitzen etheen artean, narratzaile onenak zeinek ekarriko. Eus-

kal Herrian ezaguna da, adibidez, arta-zuriketak ahozko literatura garatu eta zabaltzeko garrantzi handiko espazioak izan zirela. Txandaka egiten zen baserriz baserri auzolanean artaburuak zuritzeko lana. Gazteak biltzen ziren batez ere, eta asmakizunak, kantuak eta antzerkiak egiten ere aritzen ziren.

Baina gizartea aldatu den neurrian, aldatu da istorioak kontatzeko dugun modua, eta kontalarien jarduna bera ere bai. Azaldu digutenez, gaur ezagutzen duguna, kontalaritza mendebaldar modernoak, 1980ko hamarkadan birsortutakoa da, tradiziozko kontalaritza galdutzat jotzen zen garaian egindako birmoldaketa garai-kidea, etena egon baitzen transmisioan aurreko hamarkadan. Egun, jendaurreko

ipuin-saioak izaten dira kontalarien ikus-kizunak, aisialdiari lotuak eta ezaugarri literario, eszeniko, tekniko eta estetiko propioak dituztenak.

Garai bateko kontalari trebeenak, esaten denez, ofizioz ziren kontalari. Ofizioz, jardun horretan entseatzen zirelako burubelarri, maila handia lortzen zutelako, eta hara eta hona ibiltzen zirelako zeregin horretan. Sormena, teknika eta funtzionaltasuna konbinatzen zituzten beraien jardunean, eguneroko bizitza eta lanetarako aholkuak emanez askotan.

Egun ere bada kontalaritza ofizio duenik eta izaera hori aldarrikatzen duenik, beste era batera bada ere. Horien artean, besteak beste, gurekin mintzatu diren Ane Arrugaeta (Gasteiz, 1983), Ane Ge-



Ezker-eskuin: Ane Arrugaeta, Itziar Rekalde eta Ane Gebara.

bara (Gasteiz, 1989) eta Itziar Rekalde (Bermeo, 1955).

Tradiziozkoaren aldean, kontalaritza modernoak beste edozein praktika artistikoren mailako aitortza eskatzen du: komunikazio ekintzaz gain, arte eszenikoa era badela eta izaera propioa duela azpimarratu dute elkarriketatu ditugun kontalariek, egitura, arau, tresna eta lengoia propioak dituen. Horregatik sortu dute, besteak beste, Euskal Herriko lehen Kontalaritza Eskola: ahozketasuna eta ahozko komunikazioa balioan jartzeko, eta kontalaritzari buruzko jakintza ekotzi, jaso eta transmititu ahal izateko.

ABIAPUNTUA: ZER DA KONTALARITZA?

Rekalde 1990eko hamarkadan hasi zen ipuinak kontatzen. Antzerkilaria zen ordurako, eta harrezkero ibili da, beste gauza askoren artean, arte eszenikoetan eta kontalaritzan. “Gurea zer den?”, azkar erantzun du galdera: “Arte eszeniko bat, istorioak kontatzen dituen hitz soilarekin, inolako laguntzarik gabe. Entzu-

leen ebokazioa jartzen dugu martxan. Irudimenaren eragileak gara. Zineman irudiak eginak ematen dira, eta antzerkian, antzeztu egiten da. Guk proposatu egiten dugu, eta performatikoa da. Horrek eta bat-batekotasunak bereizten du beste diziplinetatik”.

Hitza da, beraz, kontalariaren oinarritzko lanabesa. Arrugaetak “publikoarekin batera egiten den arnasketa” dela nabarmendu du. Hau da, ezin da pentsatu zuzeneko kanpo eta entzulerik gabe: “Kontalaritza publikoari eskutik helduta egiten den bidaia emozionala da, bat-batean eta elkarrekin sortzen baita”. Ez da publikoarentzako egiten, harekin batera bazik. “Publikoa sentitu behar duzu saioan zehar”, gehitu du Gebarak: “Konektatuta egon behar duzu, jendea nola sentitzen den sumatzen, ea elkarrekin goazen edo ez sentitu, eta horren arabera elementuak eta erritmoa aldatu, gehitu, kendu edo moldatu”.

Ipuina ezagutzea ez da nahikoa, jendaurrean kontatzen jakin behar da, publikoari eta unean uneko komunikazio

beharrei egokitzen. Saioa ona den edo ez, beraz, momentuan ebazten da. Horrek egiten du bat-bateko eta performatiko.

Gasteiztarrek dira Arrugaeta eta Gebara, eta urteak daramatzate kontalaritzan. Arabazan Elkartearen sorreran ere aritu ziren biak. Arrugaeta liburutegietan hasi zen haurrentzako ipuinak kontatzen. Gebarak aldiz, bere kabuz, antzerkitik, intuitzioz eman zuen saltoa.

ESPONTANEOTASUNA EZ DATOR BEREZ

Inprobisatzaile ona izateko aurretiko lan eskerga behar da. Bat-batekotasuna eta naturaltasuna ez dira lortzen entrenamendurik gabe. Teknika eta baliabideak trebatzeaz gain, kontatuko dituzten istorioen gaineko lanketa handia egiten dutela azaldu dute Rekaldek eta Arrugaetak, plano literario zein pertsonalean.

Batetik, kontakizun bakoitza “bere aspektu guztietan” goitik behera ezagutu behar dute; sakonean landuta izaten dituzte egitura, sinbolismoa eta mezua; eta,

bestetik, “ipuinak norberari eragiten dion bidaia emozionala ere egina izan behar da, horrek ematen duelako askatasuna jendearen aurrean zabaltzeko, biluzteko”.

“Kontalaritza ez dago gidoirik idatzita”, azaldu du Gebarak antzerkiarekin alderatuta: “Hitzak prestatzen dituzu, noski, ipuinari dagokion unibertso semantikoarenak, baina ez dituzu esaldiak aldeztu aurretik idazten. Momentuan osatzen dituzu”. Errepikaezina da saioa, eta hori oso gustuko du Gebarak: “Edo hor zaude edo ez zaude. Liburu bat eraman dezakezu ez dakit nora eta bakarrik egon. Gurea hor geratzen da. Eta ezin da bakarrik egin. Horrek bizia ematen dio. Ezin da kopia eta erreproduzitu eta beste toki batera eraman. Eta idazten bada ere beste gauza bat da, beste arte bat. Ahozko tradizioetik jaso dena idazten denean, orduan beste gauza bat da”.

“ ”

*Liburutegiei esker
profesionalak sortu dira.
Baina hori ez da gure toki
naturala eta irakurketa
sustatzea ez da gure
ofizioaren berezko izatea*

Ane Gebara

ORALITURA ETA AHOZKO TRADIZIOA, GAURKOTUTA

Alderantzizko ariketa ere egiten dute maiz kontalari garaikideek: tradiziozko ipuin eta kondairak berriro ahozkoa ekarri. “Gauza asko idatziz etorri zaizkigu, etnografoek jasota, eta orduan transliterazioa egiten dugu literaturatik oralitara”, azaldu du Rekaldek.

Oralitura hitza darabil Rekaldek ahozko literatura baino, literaturarekin parekatzeko: “Ahozkoa, ilustrazio garaitik, ezjakintasunarekin lotu da, herrikoia zelako, idazten ez zekitenena. Ahozko narrazioa esaten da, baina orduan idatzizko narrazioa ere esan beharko genuke. Ahoz egiten den literatura idatziz egiten dena bezain inportantea da, eta mendeetan egin den artea da”.

Gebarak argi ikusi zuen idatzizkoak eta ahozkoak izaera ezberdina dutela, Arabako ipuin zaharrekin lanean aritu zenean: “Aurkitu nituen narrazioak oso eskematikoak ziren, anekdotak bezalakoak”. Bere buruari galdegiten zion ea irakurritakoa nola kontatu zezakeen publikoaren aurrean, eta bere buruari mila galdera egiten hasi: “Idatzita dagoenari mila buelta eman behar dizkiozu, galdera asko egin, idatzitakoaz gain zer duen asmatzeko, kontatu ahal izateko”.

Gebararen ibilbidean garrantzitsua izan zen bere herriko tradizioaren bilaketa, bere buruari eta lanari zentzua emateko nolabait: “Helduei kontatzen hasi nintzenean, neure buruari galdetu nion zer nahi nion munduari esan. Horrela konturatu nintzen ez nituela ezagutzen nire herriko historiak”. Gauzak horrela, Arabako istorio zaharrak ezagutzeko grina piztu zitzaion: “Istorio horiek kontatu behar dira ez bakarrik jatorriagatik, baita ere gaur egun esanahia dutelako, zentzua ematen diegulako orain”.

IPUIN SAIOA, MATERIALA ETA MEZUA

Hemen eta orain, asko izan daitezke narrazioa eraikitzekeko materialak: ipuin zahar eta berriak izan daitezke, edo gertakariak, edo esperientziak. Rekaldek dio anekdotaren batek edo “zerbaitek arreta eman” ohi diola beti, bakoitzak “esanahi propioa” ematen diola istorio bati, eta gero moldatu egin behar dela norberaren estilora.

Arrugaetaren hitzetan, garrantzitsua da norberak ulertzea kontakizun bakoitzak zer esan nahi duen beretzako. Gertatu izan zaio istorio batek arreta eman, gorde, baina urtebete pasa behar izatea jendarteratu arte, argitu arte istorio horrek zer eragiten zion bere barnean, eta zer mezua nahi zuen helarazi.

Ipuin-saioak egitura eszeniko konplexua du eta, zintzotasunez sortu eta eraikitzeke, bi galdera egin behar ditu kontalariak, Gebararen ustez: “Nor naiz ni hau kontatzen, eta zer esan nahi diot munduari?”. Izan ere, beste edozein arte diziplinak bezala, gizartearekiko ardura du kontalaritzak, Rekalderen arabera. Ezinbestean, mezuren bat transmititzen da eta ideologia dago egiten denaren atzean. “Ikusi bestela Disney-k ipuin herrikoiekin egin duena: ideologia burgesaren arabera moldatu”. Horren jakitun izan behar dela uste du haurrei kontatzen zaienean ere, eta umeentzako egiten den kontalaritzak helduentzako egiten dena-

ren kalitatea eta aitortza berbera merezi duela. Era berean, haurrentzako kontalaritza ez da izan behar entretenimendu hutsa, ezta “arauak emateko modu polit bat” ere. Irudimena zabaltzeko balio behar du, esperimentatzeko, eta horrek lan “serioa” eskatzen duela uste dute.

“ ”

*Kontalaritza da
publikoarekin eskutik
egiten den bidaia
emozionala, bat-batean eta
elkarrekin sortzen dena*

Ane Arrugaeta

Izan ere, kontalaritza helburu pedagogikoetarako baliabide gisa erabili da maiz gurean, irakurzaletasuna sustatzeko batik bat. Helburu didaktikoei eman zaie zentralitatea, nabarmen gehiago askotan, diziplinaren berezko ezaugarri artistikoei baino. Horrek kontalaritza zokoratu egin du neurri batean liburutegietara, areto eta espazio propioerik ez edukitzera ia-ia. “Tresna modura ikusten da, ez da aintzat hartzen arte eszeniko modura”, Gebararen hitzetan. “Liburutegiei esker profesionalak sortu dira. Hori argi utzi behar da. Hala ere, ez da gure toki naturala eta irakurketa sustatzea ez da gure ofizioaren berezko izatea. Sustatu ditzakegu sukaldaritza, irakurketa, musika, dantza... zeharka. Baina gureak da iruditeria, ebokazioa, emozioak eta halakoak sustatzea, eta ahozko adierazmena”, gehitu du Rekaldek.

KONTALARITZA ESKOLA, OFIZIOA EGITEKO

Testuinguru horretan erabaki zuten iaz Kontalaritza Eskola sortzea, beste zenbait kiderekin batera. Horietako asko dagoeneko Arabazan Kontalaritza Elkarrean zeuden elkarrekin, 2021etik. Gebarak azaldu duenez, Arabazanen sei bat lagun biltzen hasi ziren, kontalaritza oso gauza bakartia zela iruditzen zitzaielako. Aldi berean, baina, jakitun ziren jende asko zegoela urteak zeramatzana



horretan: “Itziar [Rekalde] genuen erreferente Gasteizen, eta oso era eskuza-balean hartu gintuen etxean, irakasteko eskatzen geniolako, eta horrela joan zen taldea egiten. Esperientzia partekatze gogoa genuen eta, era berean, ikusten genuen dakitenek irakasten ez badute, hurrengoek hutsetik hasi behar dutela behin eta berriro”.

“ ”

Arte eszeniko bat da gurea, istorioak kontatzen dituen hitz soilarekin, inolako laguntzarik gabe

Itziar Rekalde

Egonkortzea erabaki zuten beraz, eta eskola bezala formalizatzea. Batetik, kontalaritzari buruzko jakintza eta ezagutza sortu ahal izateko, hau da, teorizatze; eta bestetik, formakuntza eskaintzeko, transmisioa egin ahal izateko. Munduko beste txoko batzuetan badira gisa honetako eskolak, kontalaritzaren suspertze mugimendu egonkorragoak edo izan dituztelako; Kolonbian, esaterako, unibertsitatean irakasten da kontalaritza. Euskal Herrian egon dira aurrekariak, ikastaro eta formakuntza saioak, ipuin egunak... “Jende askok egin du lan handia”, hiruen ustez.

Kontalaritza Eskolaren ekarpena edo berritasuna zera da: eskola progresiboa dela, hiru ikasturtekoa, irakasle eta ikasle talde egonkorra duena. Garaion Sorgingunean egiten dute (Ozaeta, Araba), eta hilabeteen behin dira saioak. Oinarritik hasten dira irakasten: arketipoak, mitoak, kondairak, literatura, ipuinen esanahi sinbolikoa eta egiturak. Eta beste alor batzuetako adituak ere badituzte. Gisa horretan, teoria eta praktika uztartzen dituzte.



Eskolaren izateko arrazoi nagusia “kontalaritza ofizio bezala indartzea” da. Rekalderen hitzetan, ofizioduna izateak ez du esan nahi lanerako kontratatzea han edo hemen. “Egiten duzuna serio tasunez hartzea esan nahi du, lana eta ezagutza, zintzotasuna, kalitatea”. Arrugaetak formakuntzak ematen duen sakontasuna azpimarratu du: “Giltza ematen dizu istorioari eusteko, bestela azalekoa da kontatzen duzuna askotan”. Gustua entrenatzeko eta publikoa sortzeko ere balioko du eskolak, Gebararen ustez.

Bi urtean behin zabalduko dute izena emateko epea eta parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi izan dute. Kontalaritzak nork bere burua deskubritzeko balio duela gogorarazi du Gebarak, “mundua une batez gelditzeko, hemen eta orain denok batera egoteko”. Rekaldek ere kontalaritzak komunitatea indartzeko balio duela uste du, eta komunikazioak egiteko horretan duen papera azpimarratu: “Zuzeneko komunikazioa guretzako entzuten ikastea da, besteari begira egotea, arreta izatea eta aurrez aurre komunikatzeko gai izatea, horretarako gero eta erreminta gutxiago ditugun garaian”. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA ANTZEZLE, ZUZENDARI ETA AXUT! KOLEKTIBOKO SORTZAILE XIMUN FUCHSEK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

7			4	2	3	8	9	
	2	9	7			4	6	
			6		1	7		
	9				1		8	
4	1		6			3	2	9
			9	5			4	
1	4		2	7		9	3	
9	8	7	1	3				6
		3		9	6	7	1	4

ERRAZA


7					9	3		
					9			
	9		8	4		6		5
	4				2	1		
5		7			3	4	6	
		2						3
4				2			9	
1		6	3			5		2
					6	8	3	

ZAILA

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Atsegin. 2. Gaueko otordu.
3. Araua, bereziki gizartearen onespenak ezarria. 4. Zoroak. 5. Irmo, sendo.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				I	L	A	R	I
2	A				A	L	D	I
3	E	R				O	K	I
4	S	I	M				I	A
5	B	I	T	A				Z
6	D	E	M	O	N			

EBAZPENAK

7	6	1	4	2	3	8	9	5
5	2	9	7	1	8	4	6	3
8	4	5	6	8	7	3	2	1
6	9	2	3	4	1	5	8	7
3	7	8	9	5	2	6	4	1
4	1	5	6	8	7	3	2	9
2	5	3	8	9	6	7	1	4
9	8	7	1	3	4	2	5	6
1	4	6	2	7	5	3	8	9

ERRAZA

ZAILA

PUZLEA: SINTATIKOAK IZATEN SAITU GARA, BAINA HORREK EZ DIGU FUNTZIONATZEN, INDAR HAREMAN BAT SORTU BEHAR DUGU. EUSKAL KULTURA ZENTZURIK ZABALENEAN HARTU.
5XS: 1. LAKET, 2. AFARI, 3. KANON, 4. EROAK, 5. TINKO.
HIZKI BERAK: 1. ERTILARI, 2. ATERALDI, 3. ERRETOKI, 4. SIMETRIA, 5. BITARTEZ, 6. DEMONTRE.



Handinahikeria vs txikitasuna

 GORKA INTXAUSTI ARANGUREN

Iritsi da uda. Egunak argi, bero eta luze dira orain, eta kostaldea jendez, sonbrilaz, krema usainez eta doi-doi ulertzen ditugun hizkuntzez bete da. Zuzeneko musikan ere gauzak asko aldatzen dira: mailarik gorenean daudenek makrojaialdietako birari ekiten diote, poltsikoak betetzea xede; maila apalagoan, herri eta auzoetako jaiak martxan direnez, euskal herri osoko plazak beteko dituzte betiko hamabost taldeek, sorpresaren bat edo beste tarteko. Kulturarako eta jaietarako diru partiden zati handi bat eskuratuko dute *management* enpresa jakin batzuen eskutik aritzen direnek, eta udaletako kultur arloko langile eta politikariak pozik egongo dira beraien herrian 10.000 pertsona bilduko direlako aurten ere. Pozik, nahiz eta haiei ordainduko dieten diruarekin urte osoan zehar emanaldi duinak egin ahaliko lirakeen. Bost eguneko oasiak, 360 eguneko basamortuen truke.

Zoritxarrez –edo ez–, oasian ere ezin denek edan. Talde asko, arrazoi bat edo

beste tarteko, zirkuitu horietatik kanpo gelditzen dira. Zorionez, gaztetxe eta bestelako espazio eutogestionatuek bizirik mantentzen dute kontrakultura. Horren adibide da Paralelo Zero jaialditxoa, Irungo Lakaxita gaztetxearen, Hendaia-ko Borderline Fabrikaren eta Hondarribiko Psilocyberen artean sortu dutena. Bi eguneko egitarau ederra, Bidasoaren bi ertzetan. Gu larunbat gauean bertaratu gara Irunera, ikusiko ditugunak beste leku askotan ikusteko aukerarik izango ez dugulakoan.

Gauak lehenengo. Lea Marie Uria eta Naia Burucoat Berlingen zeuden artean ezagutu zuten elkar, eta han sortu zuten proiektua. Estiloari dagokionez, elektronikoa da, esperimental oso. Musika, performancea, hitzak, oihiak, denak kontra egiteko eraikiak. *Sistemaren kontra, familiararen kontra, inork entzuten ez bazuen ere... baina aagian norbaitek entzuten du dio Irratia* izeneko abestiak. Horixe erakutsi digute gaur, argi gorrien artean: zapalduta bizi direnei zuzenduriko ereserki

GAUAK ETA GORI GORI

NON: Irungo Lakaxita gaztetxean.

NOIZ: uztailaren 5ean.

sorta, ohiko frekuentzietatik kanpo emittitua, baina ondo sintonizatuz gero argi eta garbi entzuten dena.

Gori Gori bigarren. Ainara Gurrutxaga eta Ander Fernandezek osatzen dute talde kosmiko hau. Eta ez, hauek ere ez dira talde *arrunta*: sintea, klarinete bat, xilofono elektroniko handi bat –nik hala deskribatuko nuke; berez, ez dakit zer den–, ordenagailuan baseak eta bi lagun jendaurrean. Letrak *my grandma is a horse, a wild wild horse* eta antzekoak. Dibertigarria da. Mamarratxoa eta punka. Irribarrea marraztu digute ikusleoi aurrean, eta denak hasi gara, ez dakit: trostan? Gaua berez bazen bero, are gehiago goritu dugu giroa. Bukatu denerako infernu basa bihurtu da Lakaxita.

Udak baditu, hortaz, bere tasun eta keriak. Izan zitekeen batzuen handitasunak txikikeria batzuk dituela bazter uzten, baina nago askoren handinahikeriak duela definitzen beste batzuen txikitasuna. Handia iraultzen dugun artean, jarrai dezagun txikiak gozatzen. ●



LIBURUA

Negu gorrirako ipuina



WIKIPEDIA

CARMILLA

J. T. SHERIDAN LE FANU

ITZULPENA:

MAIALEN BERASATEGI

EREIN, 2025

AMAIA ALVAREZ URIA

L iteratura unibertsala bilduman argitaratu berri dute J. T. Sheridan Le Fanu irlandarraren 1872ko *Carmilla*. Maialen Berastegi Catalánek euskaratu du eta hitzaurrea ere egin dio. Banpiroen istorio bat da, baina baditu berezitasun batzuk. Batetik, beldurrezko azpigeno horretako lan aitzindarietako bat da. Izan ere, ezagunagoak zaizkigun J. W. Polidori-*ren Banpiroa (The Vampire, 1819)* eta B. Stoker-*ren Dracula (1897)* baino lehenago idatzi zen. Bestetik, banpiroa emakume gazte bat da eta beste emakume gazte batzuk ditu helburu; horregatik, literatur lesbikoaren aurrekaritzat ere jotzen da.

Narratzailea Laura da, bere aitarekin eta haien zerbitzariekin bizi da gaztelu batean, Austrian, baso baten ondoan eta inguruko herrietatik urrun. Berak kontatuko digu

zortzi urte lehenago, 19 urte zituenean, gertatu zitzaiona. Bere hitzetan “sekula ikusiriko kreaturarik ederrena” etorriko zaie bisitan, bere adinkidea den neska gazte eder misteriotsua, eta elkarrekin maiteminduko dira.


Beldurrezko narrazioetan garaiko kezakak eta gatazkak agertu ohi dira. Literaturara erabili izan da askotan ulertzen ez dena ulertzen laguntzeko, edo debekatutakoaren inguruan jarduteko. Kasu honetan, hitzaurrean irakur dezakegunez, egileak 1840 eta 1860 urteen artean arrebata, emaztea eta ama galdu zituen eta heriotz giro horrek eta kristautasunaren erru sentimenduak eragin zuten bere idazteko eran, pertsonaietan eta gaietan. Gainera, garai hartan “emakume viktoriar zintzoaren ereduak” arrakalatzaren hasi zen, Berasategiren hitzetan.

Baina lan honetan azpimarratu nahiko nukeena da maitasun erromantikoaren mitoa. Interesgarria da banpirismoak sinbolizatzen duen desiraren eta iluntasunaren arteko harremana. Oso argi agertzen dira maitatearekiko obsesioa, maiteen arteko fusioa, borondatearen ezabaketa eta sufrimendua:

- Hiltzeko zorian izan zinen?

- Hiltzeko zori-zorian, bai... Amodio krudel bat zen... amodio arraro bat, bizia galaraziko zidana. Maitasunak ezinbestean eskatzen baitu sakrifizioa. Eta odolik gabe, sakrifiziorik ez.

Hona liburu hau irakurtzeko gomen-dioa: negu ekaiztsuan gauez, ahal dela ahoz gora elkarri, txandaka, jada ezagutzen dugun Drakularen beste bertsio bat ezagutzeko. ●



MUSIKA

Musika Hamabostaldia: nire gomendioak

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Azken urteotan egin dudan bezala, Musika Hamabostaldiak 86. ediziorako prestatu duen egitarau ederra ikusita, nire iradokizun eta gomendio bereziak egiten dizkizuet.

Egia esan, eta ia beti gertatzen den bezala, oso zaila da kontzertu batzuk nabarmentzea, horiek guztiak gustagarriak direlako, baina, zalantzarik gabe, badira galdu ezin ditugun hitzordu batzuk.

Edizio guztietan bezala, interes handiko zikloak ditugu –nahiz eta hain popularrak ez izan–, hala nola musika garai-kidearen zikloa, antzinako musikarena edo interprete gazteena. Ziklo horietan guztietan arreta merezi duten bitxiak aurkituko ditugu. Horietatik guztietatik bi hitzordu aukeratu ditut:

Bat, Xabier Boixet pianista gaztearen kontzertua, etorkizun handiko artista eta 2025eko *Villa de Bilbao* biolin eta piano lehiaketaren irabazlea. Estilo askotariko egitaraua eskainiko du. Haydnetik Mes-siaenera arte, artista honek garai eta egile bakoitzeko mundu estilistikora egokitze-ko duen gaitasuna egiaztatu ahal izango dugu.

Eta bi, Ars Atlantica taldeak antzinako musika zikloan eskainiko duen kontzertua. Talde hau XII. mendetik XVIII.era bitarteko errepertorioko ikerketa eta interpretazioan aritzen da, eremu latinoan, eta oraingoan Espainiako barrokoko musika eskainiko dute, bere alderirik frantsesenean. Oso interesgarria.

Hala ere, Kursaal zikloaren barruan, kontzertu garrantzitsuenak hartzen dituen programazioan, hain zuzen ere, bi proposamen bikainetan zentratu nahi nuke.

Lehenarekin bete-betea asmatu dute antolatzaileek: Jesus Guridiren *Amaya*



THEATRE IN PARIS

euskarazko opera. Oso aukera ona dela diot arrazoi askorengatik: Musika Hamabostaldian programatzen den lehen aldia delako, lan honek edertasun paregabeko partitura duelako, eta protagonista Arantza Ezenarro sopranoa delako, ahots ederraren jabea.

Ezin dugu opera horren aukera galdu, gurea baita. Bere libretoak Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos del siglo VIII* eleberria du oinarri; eta Jesus Guridiren musika Richard Straussen eta Wagnerren eraginez beteta dago, erreferentzia folkloriko oso estilizatuekin. Ederra bere osotasunean. Kursaal auditorioan lan horretaz gozatzeko aukera izango dugu abuztuaren 9an.

Eta azpimarratu nahi dudana bigarren

proposamena da gure konpositore handiari, Maurice Raveli, bere jaiotzaren 150. urteurrenean Musika Hamabostaldiak egingo dion omenaldi bikaina.

Parisko Opera Nazionaleko Orkestrak Ziburuko konpositorearen lan enblematiko batzuk interpretatuko ditu. *Le tom-beau de Couperin*, jatorrian pianorako suite bat dena, geroago Ravelek berak orkestratua, Couperini eta XVIII. mendeko Frantziako musika barroko osoari egindako omenaldia da, zapore barrokoa konpositorearen soinu inpresionistarekin maisuki nahasten duen harribitxia.

Ondoren, ezkerreko eskuarentzako piano kontzertua joko dute, istorio berezia duen obra bikaina. Kontzertua Paul Wittgenstein piano-jole vieniar bikainarentzat konposatu zen. Pianista horrek eskubiko besoa galdu zuen I. Mundu Gerran. Horren ondorioz, depresio sakon batean erori zen. Gerra amaitzean, ordea, pianistak ezkerreko eskuarentzat zegoen errepertorio guztia lantzea erabaki zuen. Sol maiorreko kontzertua konposatzen ari zen Ravel, baina piano-jotzaile honen istorioak hunkitu zuen, eta berehala jarri zen lanean ezkerreko eskuarentzako lan bikain honekin.

Oraingo honetan, Parisko Operako Orkestraz gain, Kirill Gerstein Estatu Batuetan bizi den pianista errusiarra izango dugu bakarlari.

Kontzertua osatzeko, konpositore garai-kide garrantzitsuenetako baten obra bat entzungo dugu: Thomas Adèsen *Piano eta orkestrarako kontzertua* hain zuzen ere. Kontzertua abuztuaren 27an izango da.

Beraz, Kursaleko bi hitzordu gure agenda melomanoan apuntatzeko. Uda eta musikaz gozatzera Musika Hamabostaldian! ●

Azpeitiko istiluaren titular beldurgarrienak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Kuriosoa da hitz bakoitzak zenbat bala gordetzen dituen errekamarran. Hedabideek gertakari bat, bakarra, berbera, kontatu behar dute. Eta prezisioz aukeratzen dute munitzioa. Hartu joan den igande goizaldeko Azpeitiko notizia, adibidez. Raymond Queneau bera inbidiaz hiltzeko modukoa da estilo-ariketa mediatikoa.

Izan dira, noski, informatzeko egin-beharra serio demonio harturik, pres-tidigitazio handiegitan aritu ez direnak. "Istiluak izan dira" baten ostean, liskarra noren artean gertatu den kontatu dute –"herritar talde bat" edo "gazte batzuk" alde batetik; ertzainak bestetik–, eta ondoren beste zerbait erantsi –adibidez, elkarretaratzea deitu dutela poliziaren gehiegikeriaren aurka; edo Ertzaintzak eginbideak abiatu dituela identifikatutakoak kontra–.

Baina, meh, horiek datuak dira. Eta, azken finean, bizi garen mundu honetan, nori inporta zaio zer pasa den benetan? Hemen kontua da, eskura dagoen materialarekin aurrekontu baxuko pelikula bat muntatu behar dela kosta ahala kosta ze, periodikoen negozioa urte osoan ere txikili-txakala baldin badabil, imajinatu nola pasatzen duten erredakzioek notizietan hain lehorra izaten den uda parte hau.

Zerbait asmatu behar. Vocento taldeak, adibidez, alkimia periodistikoa asmatu du, albiste berari bi titular desberdin jarritz. *Diario Vasco*-rena akustikoa da, baina ez horregatik benenorik gabea: "Gazte talde batek ertzainei eta udaltzainei eraso egin die, Azpeitiko komisaria *setiatu* ondoren" –kurtsiba nik jarri dut–. *El Correo*-rena berriz, thrash-metalak: "Erradikalek ertzainei eta udaltzainei eraso egin diete, Azpeitiko komisaria *setiatu* ondoren".

Gipuzkoako gazteak Bizkaian erradikal bilakatzen dira beraz. Kontxo. Esa-

ten nuen ba nik, pertsona moderatuagoa nintzela Leioara ikastera joan aurretik.

Euskal Erdiko jende normalak™ irakurtzen dituen egunkariekin bakarrik ez goaz inora, orde. Mapa pixka bat osatzeko baino ez bada ere, *Diario de Navarra* bisitatu behar da, zeinak hone-laburbildu baitu asuntua: "Dozena bat *asaltatzailek* Azpeitiko polizia-ri jo diete eta heriotza mehatxuak egin".

Titular asko manejatzen ari garen ez, kontuak ez despistatzeko, orain artekoaren laburpena egin beharrean gaude: Gipuzkoan, gazteak; Bizkaian, erradikalak; Nafarroan, *asaltatzaileak*. Egin omen dituzten gauzak ere, geroz eta terribleragoak. Segi dezagun.

Gogoeta batekin, zehazki: betikoa, hemengoon artean ez gara ados jartzeko gai. Perspektiba zabalagoa behar dugu. Irten gaitezen mundura. Espainiakora behintzat. *El Mundo*: "Dozena bat *gazte erradikal* Azpeitiko komisarian *asaltoan* sartu dira, bi polizia-ri eraso egin diete eta...", bale, bale, stop, honek dena dauka: gazte erradikal *asaltatzaileak*. Joder, horiek lehen Bronx-en eta horrelako lekuetan ibiltzen ziren, ez Azpeitian.

Baina sentsazio hori, hala ere. Zerbait falta dela. Zopa lodixeagoa ere aterra daitekeela oraindik, sutan pixka bat gehiago edukita. A, hemen dago, Casimiro García-Abadilloren *El Independiente* digitelean: "Azpeitiko komisariaren *asaltoak* Euskal Herriko *kale-biolentziaren* mamua berpiztu du". Alegia, orain arteko gazte gaizto horiekin aski ez, eta orain maindire zuri bat jantzita molotov koktelak botatzen dituen espektroa ere agertu dela.

Ez dakit, inflazio berbal handiegia iruditzen zait errotulagailu batekin pilen kontainer batean idatzitako lau letraren kontura sortutako saltsa barentzat. Ez ote da izango zenbait elkar-te polizial, zenbait hedabideren laguntzaz, giro bat sortu nahian ari direla, ea behingoz *taser* pistolatxo horiek ematen dizkieten –eta, auskalo, lanaren arriskuagatik soldatan plusen bat ere bai–?

Nik hor uzten dut galdera. Egia esan, urte sasoi honetan istilu hauei buruz idazten baino, nahiago nuke Landetako kanpin batean egon. Ai, Capbretonera ailegatzean bungalowa! ●





Abentura erraldoia Hegan

Gorka Bereziartua eta Adur

Ipuina **12€** azoka.argia.eus

Erosten duzun produktu bakoitzarekin, ekarpen ekonomikoa egiten diozu Mbolo Moye Doole elkarteari. Batez ere Senegaldik etorritako migratzailez osatutako Bilboko kale-saltzaileen elkarte da Mbolo.

Kamiseta **17 €**

Poltsa **14 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

azoka.argia.eus

(+34) **943 37 15 45**